




ARGIA



LARRUN:
ESKOLA ETA GORPUTZA

AGUS HERNAN,
FORO SOZIALA:
"ESPAINIAN PROZESUAREN
ALDEKO IRITZIA SORTU
BEHAR DUGU"

POLINESIA:
FRANTZIAK KUTSATUTAKO
HERRIALDEAZ
PRESIDENTE OHIAREKIN

**EUSKARAZ ARITZEKO
ERRONKA**
HERNANIK URTE OSORA
ZABALDU DU

MEDIKUEN ALARMA MONTPELLIERREN

MINBIZI LEHERKETA
ERRAUSTEGI MODERNOAREN
INGURUETAN



Baserriko Uzta

BELTXAREN BIKOTEA

Arbegain baserrian

(Etxarri Larraun)
otsailaren 3an

10:30ean

Izena emateko, idatzi:
baserrikouzta@gmail.com

Baserriari bisita + kontzertua + bazkaria

Izen ematea: 20€

6-12 urte: 12€

6 urte azpikoak dohain

Antolatzaileak:



zuzeu eluz



enbor

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- IRITZIAK**
- 15 June Fernandez
- 16 Jose Inazio Basterretxea
- 17 Fermin Erbiti
Itxaro Borda
- 18 David Bou



*Oscar Temaru Polinesiaiko presidente ohi independentista
proba nuklearren aurkako ekintzailea da.*

- 36 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
ENCARNA BODELÓN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO MUNTAIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 10 | Juan Luis Larraza: "Ikastolak bere bideari eutsi behar dio Nafarroan" / Miel A. Elustondo
- 22 | Erraustegi berriak ere kantzerra ugaritzen du / Pello Zubiria
- 25 | Agur Hernan: "Prozesua konplikatu da, baina modu baikorrean lantzen ari da" / Mikel Asurmendi
- 28 | Oscar Temaru: "Herrialde hau ez zitzaien modu baketsuan eman frantziarrei" / Amaia Zabala
- 32 | Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata letra txikiaren zepoan harrapatuta / Urko Apaolaza
- 34 | Hernaniarrek urte osoz eutsiko diote euskarari / Onintza Irureta
- 42 | Adrián Orr-en Niñato filma: Egun on, erresistentzia / Lur Olaizola eta Pablo La Parra
- 46 | Joxean Artze nostalgiatik harago / Gorka Bereziartua

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza.

Zuzendaria: Estibxu Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez,
Estibxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García,
Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador.

Argazkilaria: Dani Blanco.

Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus,
Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industriadia, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela.
Tel.: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE





PANORAMA

Bere burua atxilotzen duen animalia bakarra

Garapenaren izenean, munduko espezie guztiak, salbuespenik gabe, menpeko hartu eta merkantzia bilakatu ditugu. Jaten ditugu, janzen ditugu, gozamen pertsonalerako ehizatu ala giltzapetzen ditugu, zientziaren izenean barrabaskeriak egiten dizkiegu, gure hutsune emozionalak betetzeko bere ingurunetik erauzi eta gure bizimodura behartzen ditugu... Gizakiok naturatik etekina ateratzea (elikadura, eraikuntza, medikamentuak, lanabesak, energia...) zilegia eta ezinbestekoa da, baina zein unetan galdu dugu errespetua eta bizidunak gauza bihurtu? Irudian, Mexikoko Guadalajarako zoologikoa.

Argazkia: Tras los muros · Testua: Axier Lopez

EH Bilduk proposatuta, Bilbobusek geltokien artean jaitea baimenduko die bidaieriei gauez, segurtasuna handitzeko asmoz.

t “Ongi etorriak emakumeei etxerako bidean segurtasuna bermatzeko balio duten neurriak. Horra hor genero ikuspegia”

@AnnieGarnelo

t “Ekimen ona! Baina tristea da halako neurriak hartu beharra”

@carolacaracola5

t “Hemen Alemanian aspalditik egiten da. Gaueko autobus-lineak eta tranbia ibilbideko edozein puntutan geratzen dira, geltokia egon edo ez. Gidariari eskatzen badiozu, portalean sartzen zaren arte ere itxaroten du. Eskertzekoa, berandu bidaiaitzen duzunean”

@joncelis88



Derrigorrezko zerbitzu militarra berrezarriko duela adierazi du Macronek

Argia

Frantziako presidente Emmanuel Macronek Toulmn itsasontzi baseko militarren aurrean adierazi du derrigorrezko zerbitzu militarra berrezartzeko asmoa, *Le Nouvel Observateur*-ek aditzera eman duenez. Hala iradoki zuen hauteskunde kanpainan, baina orain arte ez zuen argipenik eman.

Hauteskunde kanpainan adierazitakoaren arabera, soldaduskak hilabeteko iraupena izango luke eta “frantziar guztien batasuna eta kohesioa sustatzeko” baliagarria izango litzateke ekimena.

1997an indargabetu zuten Frantziako Estatuan derrigorrezko zerbitzu militarra, Jacques Chirac presidente ohiaren eskutik. Orduz geroztik, garai batean soldaduska zena Defentsarako Prestakuntzarako Deialdi Eguna bilakatu zen eta hala izaten jarraitzen du: egun bakarreko jarduna da eta derrigorrezkoa da biztanle guztientzat.


Zazpi urtez, astebeteko formakuntza

Horri gehitu behar zaio Frantziako presidenteak hauteskundeetan agertu zuen beste asmo kezagarri bat: Estatuko gazteek 10 urte dituztenetik 16 urte betetzen dituzten arte, urtero-urtero astebeteko formakuntza militarra jasoko lukete.

“Lujanbiok eta Agirretxek Radio Euskadin euskaraz egingo balute, zer?”

ALBERTO IRAZU, KAZETARIA

Galderak gaztelaniaz eta Irazuk erantzunak euskaraz egin ditu zuzenean Radio Euskadin; ia 20 minutuko esperimentua. “Kalean elkarriketa elebidunak egiten hasiak gara, 2018ko hondarrean Euskaraldia dator eta beste hainbeste egiten arituko gara Euskal Herriko herrietan. Kaleko esperimentuak nola jasoko dituzte irrati eta telebistek? Zergatik ez hedabideetan esperimentatu kalean egiten ari garena? Jende xeheaz gain, Lujanbio edo Agirretxe bezala, beste edozein pertsonaia publiko dut buruan”. **ARGIA.EUS (2018-01-18)**



FAUNA PUBLIKOA

"Jose Luis Alvarez Enparantzak badauzka ezaugarri asko, tartean ETaren sortzailea izan zela. Normala iruditzen zait horrek udal mailako errekonozimendu bat egiterakoan zailtasunak sortzea"

Eneko Goia, Donostiako alkatea
(Euskadi Irratia)

Memoria selektiboa



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Arrazoi du Goiak: Jose Luis Alvarez Enparantzak, Txillardegik, badauzka ezaugarri asko, tartean Donostiako alkateak elkarriketa honetan erabiltzen duen hizkuntzak estandar arautua izan zezan egindako lan titanikoa, zeina gabe ez den posible ezta elkarriketa bera ere, hizkuntza gaur egun ulertzen dugun moduan belaunaldi horri zor diogulako.

Hori hasteko. Zeren, baditu ezaugarri gehiago ere: euskarazko lehenbiziko nobela modernoaren egileaz ari gara edo, gutxiago aipatzen diren kontuak ekartzeagatik, Donostiaren historia ondo ikertu zuen pertsona bati buruz –ikus! Antigua auzoari buruz eta Santa Klara uharteaz egin zituen bi liburuak, adibidez–, hiriak eskertu beharko lizkiokeen kontu pare bat besterik ez aipatzeagatik.

Eta bai, Txillardegi ETaren sortzaileetako bat izan zen. Detaile bat ordea: 1968ko ekainaren 7an ETak lehenbiziko pertsona hil zuenerako, jada ez zen taldeko kide. Hamarkada batzuk geroago Aralarren ere aritu zen, borroka armatuarekin kritikoak ziren ezker abertzaleko kideak biltzen zituen alderdian. Hori ere izan zen Txillardegi eta bere posizionamendu guztiak kontuan hartu gabe, nekez osatu dezake inork haren ibilbideari buruzko ideia txukunik.

Zergatik, baina, Donostiak azken mendean eman duen intelektual handienetako batekin horrelako jarrera mizkina? Ezin izan zutelako bezatu. Ez zelako diktaduraren zapa-tapean egoteko pertsona, ezta diktadura osteko paktuek saldu zuten zapata estuan kabitzekoa ere. 1978ko erregimenaren memoria selektiboa hemen ere nola aplikatzen den erakusten du Goiaren adierazpenak: berdin du zure ibilbide osoko ekarpenak, esaneko jendeari errazago zabalduko diogu omenaldien atea. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



OTXARKOAGA DIOZU?
ZER DA HORI?

AUZO BAI?

ZER DA
HORI?



AÑUR

ANALISIA



Erlojuaren kontra



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: EMEEK EMANA / MAURO SARAVIA

Joan den larunbatean, hilak 20, Bergarako laugarren instrukzio-epaitegian deklaratu behar zuen Jesus Mari Txurrukak. Bere aitonaren anaia Hanburgoko kontzentrazio zelai batean hil zen 1945ean, eta birramona berriz, faxistek hil zuten bederatzi urte lehenago, Elgetako haren baserrian hotz-hotzean tirokatutik. Baina ez du deklaratu. Ez berak ezta urtarrean zehar epaitegitik igaro behar zuten frankismoko biktimen beste 13 senideek ere.

Elgetako Udalak frankistek herri horretan egindako krimenen kontra jarritako kereila tramitera onartu zuen Maider Imaz Bergarako ordezkoko epaileak azaroan. Erabaki historikoak harabotsa sortu zuen, lehen aldiz Espainiako Estatuko Justizian zirrikitu bat irekitzen zuelako duela 80 urteko basakeriak epaitu ahal izateko.

Esperantzak gutxi iraun du ordea, Hugo Jacobo Calzon Mahia epaile titularrak artxibatu egin baitu auzia. Arrazoia, betikoa: 1977ko Amnistiaren Legeak ez duela uzten delitu horiek ikertzen eta preskribitu egin dutela. Frankismoaren Kontrako Kereilaren Euskal Plataforma iritzi aldaketa horren atzean "esku politikoa" ikusi du; plataformako bozeramaile Josu Ibargutxik Radio Euskadiko *Ganbara* saioan azaldu du, fiskaltza

guztiekin argudio bera erabiltzen dutela eta *copy paste*-a agerikoa dela. Azkenekoa urtarrearen 15ean jakin dugu: Konstituzio Auzitegiak atzera bota du Martxoaren 3ko gertaeraz Arabako Batzar Nagusiek jarritako babes helegitea.

Espainiar legediaren "harresi" hori gainditzeko, nazioarteko hitzarmenak gizateriaren kontrako krimenez diotena aintzat hartzeko eskatzen dute biktimen elkarteek, halakoek ez baitute preskribitzen. Genozidioa herritarren ezabatze kontzientea da, hitzarmen horien arabera.

Elgetan 1936ko urrian faxisten erasoaldia gerarazi eta errepublikarrek ustekabearen fronte bat eratzea lortu zuten. Mendekua zitala izan zen elgetarren kontra, herri hartan 33 lagun hil zituzten. Gurasoak bere aurrean hil eta bortxatu zuten Anttoni Telleriaren kasua izan daiteke lazgarrienetakoa, baina hilketak, isunak eta errepresioa sistematiakoak bezain kontzienteak izan ziren.

Biktimarioak badoaz, baina Estatuaren erantzukizun subsidiarioak bere horretan segitzen du. Arazoa da denborak aurrera egin ahala gero eta gaitzagoa dela testigantzak lortzea eta egia frogatzea, eta soilik egia atzetik etor liteke justizia.

Jesus Mari Txurrukari aitona-osabaren erlojua itzuli zioten Alemaniatic, naziek 1944an konfiskatua. Kristala hautsita zuen, baina haren orratzek berdin-berdin egiten dute aurrera Elgetako memoriaren museoko horman.

EKONOMIAREN TALAIAN

Euskal Herrian ere bai al da "koskadarik"?



Juan Mari Arregi

Egunotan hiru gertaera judizialek bat egin dute "koskadekin" edo obra publikorako kontratatzen ziren enpresei kobratutako komisio ilegalekin zerikusia dutenak. Lehena, Gurtel auzia. Bigarrena, Kataluniako Palau auziko sententzia bat, zigortzen duena *Covergència Democràtica de Catalunya* izandakoa –orain PdCat– 6,6 milioi euro ordaintzera, obra publikoetan komisio ilegalak kobratu eta alderdia finantzatu zuelako. Bere lau arduradunen kontra zigor kartzela ere ezarri du epaiak. Eta hirugarrena, EAJren inguruko 26 lagun –horien artean Alfredo de Miguel Arabako Tokiko Administrazio Saileko diputatu ohia– Gasteizen epaituak izaten ari dira De Miguel auzia dela-eta. Besteak beste, leporatzen diete 100.000 euroko komisioa kobratzea enpresa bati, kontratu publiko batzuk esleitzearen truke.

Espainiako Estatuko ustelkeriaren izebergaren zati txiki bat ari da azaleratzen, eta zenbait lurraldetan agintean dauden alderdiei eragiten die batez ere. Euskal Herria salbuespena zela pentsatzen zen. Baina badirudi ez dela horrela. Nafarroan ezagutu genuen, besteak beste, Nafarroako Kutxari loturiko kasua. Eta orain, baskongadetan, De Miguel auzia dugu epaiketa-prozesu bete-betean. EAJ prozesaturik dauden pertsonengandik bereizi nahian dabil. Baina zaila da sinestea egosten dieten zenbait delitu soilik akusatuen ardura direnik. Onura pertsonala izan zen ala alderdiarentzat ere bai?

ETA jardunean zenean, alderdi horiek "zerga iraultzailea" salatzen zuten eta estortsioa zela zioten. Orain, errealitateak pixkanaka baieztatzen digu enpresei beste zerga bat ere ezarri izan zaiela obra publikoko esleipenetan. Komisio edo omisio, gobernu eta alderdi estortsio-zaleak dira.



@ZAD_NDDL

ZAD mehatxatzen zuen aireportu proiektua, bertan behera

BRETAİNIA. Bizi proiektu alternatiboa erakitzen ari dira Bretainiako ZAD gunean (nekazariak dira gehienbat) eta 1970eko hamarkadatik, borrokan daude Frantziako Gobernuarekin, euren egitasmoa aurrera ateratzen utz diezaion. Azken garaipena ospatu dute ZADeko herritarrek: Frantziako lehen ministro Edouard Philippek jakinarazi duenez, bertan behera utzi dute Notre Dame des Landes eremuan eraiki nahi zuten aireportua. Hala ere, "legez kanpo dauden okupatzaileak joan egin behar dira udaberria baino lehen, edo kanporatuak izango dira", gaineratu du lehen ministroak.

Iruñeko Alde Zaharreko kamerak, mapa batean

Ahotsa.info
@ahotsainfo

Alberto Matxain Alde Zaharreko bizilagunak ehundik gora kamera zenbatu ditu eta Google Maps-en kokatu ditu guztiak. Gutxienez begi bistan daude. Ekimenarekin kamera hauen inguruko eztabaida piztu nahi izan du.

Noren kamerak?

Kontaktetan ehundik gora kamera agertzen dira, 11.000 biztanlera iristen ez den auzo batean. Eta norenak dira kamera horiek? Udala-renak eta Nafarroako Gobernuarenak, baina badira pribatuak ere: hotelak, dendak, banku-kuetxeak, tabernak...

Monitorizatuta

"Alde Zaharrean bizi naiz eta bertan egiten dut lan. Etxetik lanera sei minutu ditut, eta zazpi kameraren aurretik pasatzen naiz. Monitorizatuta bizi naiz", dio Matxainek, eta "zu ere bai" aipatzen du *Kontraesana* bere blogean.

Kontrol soziala

"Segurtasun eredu eta eredu sozioekonomiko baten adierazpena dira: eskuinaren eredu, desberdintasun sozialen eta kontrol sozialaren eredu. Eta eredu horri ez diogu buelta emango soilik instituzioetatik, ezta planteamendu uto-pikoetatik ere".

KATALUNIA



87

milioi euroko kostua izan du urriaren 1eko polizia operazioak Katalunian, Juan Ignacio Zoido Espainiako Barne ministroaren arabera.

1.000

zauritutik gora eragin zituzten Espainiako Indar Polizialek erreferendumen egunean. Horietatik 257k jada salaketa jarri dute.



IBON IPARRAGIRRE

Ibon Iparragirre euskal preso Arrasateko Aita Menni zentrora eraman zuten urtarrilaren 19an, bertan artatu zezaten. Ia 48 orduko bidaia egin zuen eta Valdemoroko eta Burgosko kartzeletan gau bana pasa zituen.



HAURTZAINDEGI EUSKALDUNA

Nafarroa Behereko lehen haurtzaindegi euskalduna bidean da. Urte hondar honetan edo heldu den urte hastapenean irekiko da Tinka izeneko haurtzaindegia, Lakarrako apezteixe ohian. Proiektuak kasik bost urte eman ditu gauzatzeko.



ERRAUSTEGIA

Lasarte-Oriako Landaberri ikastolatik 500 metrotara eraikitzen ari diren erraustegiaren aurrean kezka eta ezinegona adierazi izan dute ikastola-kideek. Bada, Hezkuntza Ordezkaritzak agindu die ikastola atarian jarriak dituzten pankartak kentzeko.

Juan Luis Larraza, Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendari ohia «Ikastolak bere bideari eutsi behar dio Nafarroan, eta ahal dela berriak sortu»

Urte giltzarrietan Nafarroako Ikastolen Elkartean zuzendari jardun zuen eta aldian aldiko batzordearen aginduei jarraiki gidatu zuen nafar ikastolen norabidea. Lan nekea beti, esker gaiztokoa maiz kara. Hamalau urte egin zituen lanean, uztea erabaki zuen arte. Kontatu berri du *Bidea eginez* liburu autoeditatuan. Ezinbestean, bere egia kontatuko bazuen.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Bidea eginez duzu liburua, 1969tik 1991ra bitartean Nafarroako Ikastolen ibilia kontatzen duena.

1991n utzi nuen Nafarroako Ikastolen Elkartea, bertako zuzendari nintzelarik. Ez nuen, dena den, lana besterik gabe utzi, bestek behartuta hartu nuen erabakia, gogorra izan zen, eta harrezkero neure baitara bildu, itxi, eta aldi batean ez nuen ikastolen gainean ezer jakin nahi izan. Elkartea utzi eta hiru urtera Zangozako ikastolan hasi nintzen, baina irakasle, zuzendaritza ardurarik batere gabe. Urte askoan harra ibili dut barruan, hortxe, harik eta orain, hogeita bost urte eta gero, harra kanporatu dudanean arte. Bestalde, Nafarroako ikastolei buruzko zenbait lan argitaratu dira –Irene Lopezen doktore tesia edo Ikastolen Elkartean Ametsa Egia, adibidez–, eta haietan parte ere hartu dut. Nire ustez, orde, nik esandakoak ez dira behar bezala jaso lan horietan –guraizeak erabili dituzte–, eta neure bertsioa egin behar izan dut.

Zein da, beraz, zure bertsioa?

Uste dut mundu honetan errazegi gorai-patzen ditugula izen batzuk, eta ahazten eta baztertzen, berriz, beste batzuk; lanean fin jardundako jende asko eta asko, esan nahi dut. Horixe gertatzen da herri txikietako kasuetan, inon ez baitira aipatzen. Nire nahia zen ikastola guztien historia biltzea, ikastolak abiarazteko lanean ibilitako pertsonen izenak jasotzea, kontu eta istorio bereziak ere idaztea. Garai zailean saiatu ziren guraso, irakasle eta laguntzaileak goratu nahi nituen, euskal herrietan Espainiako Ministerioaren ekimenari kontra egin ziotenak.

Zer da Espainiako Ministerioaren ekimen hori?


Euskal herri txiki askotan haurrek euskaraz besterik ez zekiten. 6 urteko eskola adinera iritsi eta ez zekiten gaztelaniaz. Eta orduko maisu-maistrak kexu ziren. Espainiako Ministerioak, orduan, haur eskola modukoak sortu zituen eus-

kal herri horietan, haurrek 6 urte bete baino lehen gaztelaniaz ikas zezaten. Sunbillan, Leitzan eta bestetan ireki ziren haur eskola horiek. Hori iraultzen saiatu zirenak goratu nahi nituen nik liburu honetan, eta horiekin batera, er-

Juan Luis Larraza Lakunza

Etxarri Aranatz, 1950

Zangozako ikastolan erretiratu zen orain dela zortzi urte. Lehenago, hala ere, bizialdia markatu dioten hamalau urte bete zituen Nafarroako Ikastolen Elkartean lanean. Zuzendari zen, nafar ikastolen eta garaiko zuzendaritza batzordearen konfiantza erabatekoa zuen. Alabaina, dimisioa eman zuen 1991n. Erabaki traumatikoa, betiko sartua arantza, *Bidea eginez* liburua idatziz atera ahal izan duena. Hein batean, bederen.



dal herrietan euskararen alde saiatu zirenak, hainbat mespretxu jaso baitzuten garai batean. Batzuen eta besteen bizi-esperientzia azaldu nahi nuen, eta haien guztien ahalegina eskertu. Desagertutako ikastola txiki askoren berri ematea zen nire asmoa, bizirik dauden ikastolak ere aipatuz, jakina.

Ez gukeen berehalakoan jakingo zen-bait herri txikitan ikastolarik izan zela.

Orain dela 40 urteko agenda eta oharrak gordeak nituen, paperak gordetzeko zaletasuna aspaldikoa baitut. Hartu agenda, bilatu halako herriko halako pertsonaren telefonoa, dei egin eta: “Aspaldi hil zen”. Kasu batzuetan, orduko nire kontaktuak hilak dira, edo oso gaxorik daude. Inoiz, delako herrian ikastola izan zela esan eta ukatu egin didate. “Nola ez dela zuen herrian ikastolarik izan, ni hor izaten nintzen eta. Ikastola izan da hemen. Halako eta halako nituen interlokutore”. “A, hilak dira horiek, zuk esaten duzun ikastolaren konturik nik ez dakit”. Alde horretatik nekeza izan da ikastola askoren haria bilatzea, eta hari hartatik tiratzea.

Herri txikien garrantzia azpimarratu nahi duzu.

Sekulako garrantzia izan dutelako Nafarroako hezkuntza sistema euskalduntzeko prozesuan. 80ko hamarkadaren erdialdera jaiotze-tasak behea jo zuen Nafarroan, eta bertako herri txikietan ez zen aski haurrik ikastola osatzeko. Dirurik ere ez zen, jakina. Eta ikastola haien lokalak ere halamoduzkoak ziren. Herri txikiotan zerbait egin beharra zegoen, urrats batzuk egin. Euskal herri handietan, bestalde, maisu-maistren belaunaldia berritu egin zen: irakasle zaharrak erretiratu ziren, eta berriek bestelako espiritua ekarri zuten. Horri esker, ikastolak eta eskolak bat egin zuten, eta irakaskuntza euskara hutsen bideratu. Nafarroako Ikastolen Elkarteak laguntza eskaini zuen, beti, gisako proiektuak lagundu behar zirenean, Lontxo Oihartzabalek eta Mikel Lasak emandako aholkuak gogoan. Aldi berean, Espainiako Ministerioa ireki xamar jotzen ari zen, eta bertako ikuskari Rafael Guimerak ikastolak eta eskolak bateratzeko erraztasunak eman zituen, ikastetxe horietan D eredu sortuko zela ziurtatuz. Ikastolaren batean traumatikoa izan zen bateratzea

Birplanteatu

“Gozatzen ari naiz. Gozatu dut liburua osatzeko informazio biltzen, eta gozatzen ari naiz orain herriz herri nabilela, liburua aurkezten. Batetik, garai bateko jendearekin elkartzeko aukera dut, eta bestetik, hezkuntzari buruzko gogoeta partekatzeke. Teknologia nagusi den garaian –tableta eta sakelakoa darabiltzate, oroz gain, gure ikasleek–, euskara bidegurutzean dago berriz”

Kate etena

“Frankismo amaierako garaian borrokatzea gertatu zitzaigun, eta hein batean erraza izan zen hura, guztiz motibaturik baikeunden. Oraingo gazteek ez dute motibaziorik eta gu, aldiz, lekuz kanpo gaude. Liburua aurkezten Igantzin, Altsasun, Etxarri Aranatzin, Beran eta bestetan izan naizelarik horixe esan didate, katea eten egin dela, belaunaldi berriak ez duela garai batekoarekin kontaktzen”

Belaunaldia

“Ez dakit borroka egiten asmatu genuen. Egin zitekeena egin genuen. Gehiago egin zitekeela dudarik ez, baina ez genuen baliabiderik ez oraingo ikuspegirik ere. Hemendik aurrerakoa belaunaldi berriei dagokie, helburuak pentsatu eta haietara iristeko urratsak eman”

–Leitzan, kasurako–, baina gehienetan arazorik ez zen izan.

Ikastolak publikoa behar zuen, ala pribatua, eztabaida beroa izan zen.

Eztabaida antzua, nire ustez, ikastola mugimenduari eta, oro har, euskararen irakaskuntzari sekulako kaltea egin ziona. Iruñean, adibidez, udal ikastola sortu zen, titularitate publikokoa, nahiz eta gainerako ikastola publikoen modura funtzionatzen zuen. Hala ere, eskola transferitua baino askoz gauza publikoagoa iruditzen zait guraso kooperatiba batek bultzatutako ikastola. Publikotasuna esaten zen, baina doakotasuna esan nahi zen, eta horrek eztabaida handia eragin zuen ikastoletan. Gainera, publiko izateko bokazioa zuten ikastola bat baino gehiagok ateak itxi behar izan zituen, eta Iruñeko Herri Ikastola da lekuko. Diruaren zuloak jan zuen. Berdin gertatu zitzaion Hiruherriri ere, alegia, Burlata, Atarrabia eta Huarteko udal aurrerakoiek sortutako ikastolak ezin izan zuen iraun, udaletan eskuineko indarrak nagusitu zirenean. Proiektua finantzatzeko dirurik gabe geratu ziren eta itxi behar izan zuten ikastola. Publiko ala pribatu, alferrikako eztabaida izan zen, nire ustez.

Zer gertatu zen 1991n? “Urriaren 8an, hamalau urtez berak sortutako Nafarroako Ikastolen Elkartearen lan egin eta gero, uztea erabaki zuen, isilik eta inongo azalpenik eman gabe, ordu arte zuzendari izan zen Juan Luis Larrazak”, liburuaren amaieran irakurri dugu.

27 urte igaro dira, eta oraindik ez dakit, zuzen, zer gertatu zen. Horixe liburuaren amaierako galdera. 1988az gero, Nafarroako Gobernuak akordio proposamena egin zuen, hiru urteko epea emanez ikastolen egoera Espainiako hezkuntza legearen arabera normalizatzeko. LODE zen lege hori, eta haur kopurua, egoitza, irakaskuntza mailak, zerbitzuak eta gainerakoak zehazten zituen. Herri txikietan ezin zuten legerik bete, ezinezko zitzairen. Jaiotze-tasa txikia, eta urtean-urtean bizpahiru ikastola itxi ziren aldi hartan. Nafar Gobernuak, bestalde, ikastolak zituzten herri txikietan –eta handietako batzuetan–, euskarazko irakaskuntza ezarriko zuela agindu zuen, eta irakasleei ere hiru urteko epea ematen zien oposizio bidez beren plazaz jabetzeko.



Orduko Euskal Herriko Ikastolen Elkar- teak besterik nahi zuen.

Bai, eta dokumentu alternatibo bat lan-
du zuen, Nafarroako Euskararen Legea
oinarri harturik, ikastetxe publiko zirela
argudiatuz eta ikastolen instituzionali-

zatzea eskatuz. Herri txikietako egoera
bideraezina zen, ordea, eta beraiek es-
katuta, 1990eko uztailaren 4an, akor-
diora sinatu zuten Gobernuako presiden-
te Gabriel Urralburuk eta Nafarroako
Ikastolen Elkarteko buru Txomin Izkok.

Ondorioz, hamabi herritan ikastolak
ikastola izateari utzi eta eskola transfe-
rituetan integratu ziren.

Ezinbestean, zure ustez.

Bai, ikastola txikiak itxi eta itxi ari zire-
lako. Zenbait herritako ikastolak, esate
baterako, ezin izan ziren akordiora bil-
du, aurreko urteetan itxi zirelako. Kasu
horietan, haurrak euskaraz ikasteko
modurik gabe geratu ziren, eta irakas-
leak lanik gabe. Olagueko kasua izan
zen, adibidez. Nafar Gobernuak bere
sarean integratu nahi zituen herri eus-
kaldunetako ikastola guztiak, hau da,
Leitza, Bera, Lesaka, Etxarri Aranzatz eta
ahal zituen guztiak. Herriotan, ordea,
ikastola sendoturik zegoen, eta Nafar
Gobernuaren bideari uko egin zioten,
Leitzak izan ezik.

Leitzako ikastolak ez.

Akordioa uztailaren 4an egin zen, eta
abuztuan, Leitzak –ordu arte Nafar Go-
bernuaren sarean integratu nahi ez zue-
nak– batzarra egin eta akordiora biltzea
erabaki zuen, zortzi botoren aldeare-
kin. Horrek korapilo eta tentsio han-
diak ekarri zituen, eta egoera eraman
ezinik Nafarroako Ikastolen Elkarteko
presidente Txomin Izkok dimisioa eman
zuen, Itziar Mujikak ere lana utzi zuen,
eta nik iraila arte iraun nuen.

Ikastola txikiek akordioa nahi zutela esan duzu.

Bai, akordioa behar zuten, urtean-ur-
tean eta tantaka-tantaka ateak ixten ari
baitziren. Ikastola txikien eskariz sinatu
zen akordioa eta, orduan, Euskal Herri-
ko Ikastolen Elkartetik etorri zitzaiz-
kigun arazorik handienak. Gipuzkoako
Ikastolen Elkarateak ez zuen gure eraba-
kia onartu.

Horixe zure egia, kontatu nahi zenuena.

Guraizerik gabe kontatu nahi nuena, eta
liburu honetan kontatu dudana, neure
kontura argitaratuz. Hala ere, nahiko
goxo eta azaletik jardun dut, diploma-
ziaz. Baina egia esan, ez dakit zer izan
zen tarteko, interes politikoak edo es-
trategikoak, ez dakit. Garai hartan ezin
zitekeen besterik egin. Hara, herriz he-
rri ibili naiz liburu hau osatu ahal iza-
teko informazioa biltzen, jakinik ordu-
ko ikastolak aurrera ateratzen lanean
ibilitako lagunartea oso indartsua zela.
Bada, orain, lagunarte haietara itzuli

naizenean sendotasun bera aurkitu dut, laguntasun eta konplizitate bera. Eta berdin esan nezake Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kideez.

Zeure barruko arantza atera duzu liburua idatzirik.

Bai. Etxean nituen agenda eta ohar guztiak astintzeko gai izan nintzenean, idatzi behar nuela konturatu nintzen. Zuzendaritza uztera eraman ninduen kasu zehatza liburuan kontatzea ez du merezi, ez du liburua idatzeko balio. Paper artean ustelduko da hori. Hala ere, esaten dizut, orduko dokumentazio, elkarrizketa eta artikuluetara itzultzeko gai izan nintzenean, ez nuen dudarik izan: "Juan Luis, oraintxe duk idatzeko garaia!". Eta uste dut ikastoletan horrenbeste lan egin duen jendeak merezi duela omenaldia. Jende horri eskaini diot nire lana. Zoritxarrez, batzuk gaixorik daude, beste batzuk hilda.

Nola ikusten duzu gaur egun euskararen egoera Nafarroako ikastetxeetan?

Hasteko, Nafarroan euskarak eskola transferituetan etorkizuna duela esa-



Azken hitza: Guraizeak

"Ez du merezi den-dena kontatzea, izen guztiak-eta. Klabe diren izenak agertzen dira, hala ere, ulertu nahi duenak ulertuko du. Ulertu nahi ez duenak, berriz, esango du: 'Ez du ezer esaten!'. Baina hor daude izenak. Batzuk, denak ez"

tea arriskutsua iruditzen zait. Nork ziurtatzen du Gobernuak euskara laguntzeari eutsiko diola? Egunkaria hartu eta egunero da liskarren bat euskararen inguruan, bateko zerrendak eta besteko espedienteak. Politikan, batzuen eta besteen artean parekatuturik daude indarrak. Hauteskunde emaitzen gorabeheran bizi gara. Hori xe da Nafarroako errealtatea. Ikastola den bitartean, bidea egiten saiatzen den artean, Gobernua ere saiatuko da euskararen aldeko lehian. Ikastolaren lehiarik izango ez balu, ez dakit. Ikastolari esker egin du bidea euskarak Nafarroan.

Bidea egin du, beraz.

70eko hamarkadan, euskara galtzeko zorian zegoen hainbat herritan. Etxarri Aranatzen, kasurako. Gaur egun, neska-mutilek -haur eta gazteek-, euskaraz egiten dute. Hori ikastolak egin du. Eskola transferituak egin du horrelakorik?... Ikastolak bereari eutsi behar dio, indartu, eta ahal dela berriak sortu herri erdaldunetan. Defentsan jokatzeari utzi behar dio, erasoari ekin. ■



bat

Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Martin Ugalde K.P.
20140 - ANDOAIN
kluster@soziolinguistika.eus
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus
<http://www.soziolinguistika.eus/bat>

BAT 104

HIZTUN BERRIAK

Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega eta Jone Goirigolzarri > Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak.

Joan Pujolar, Isaac González eta Roger Martínez > Gazte katalanen muda linguistikoak.

John Walsh > Lurraldeen arteko harremanak: sistema eragile libre oso baten alde.



GUREAN ATALA
Eduardo Apodaka eta Jordi Morales > Hiztun kategorietatik hizkuntza praktiken erregistroetara: erabilera sustatzeko neurriaren bila.

Jaime Altuna Ramírez > Generoa mingain puntan: Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen hizkuntz-pratuketara egindako hurbiltze etnografikoa.

Eduardo Apodaka, Idurre Eskisabel, Pablo Suberbiola eta Uxoa Anduaga > "Jendaurrean erabili" Praktika Komunitatea euskarazko komunikazio publikoari eraginez.

Larraitx Uría, Iñaki Alegria eta Ander Corral > Kode-alternantzia aztertzeko hizkuntza-teknologien ekarpena.

Boiro eta A Pobra do Caramiñal

Kontatu al dizuet erdi galiziarra naizela? Nire ama Boiron jaio zen, Arousako itsasadarreko herri batean. Aitite itsasoan zegoela, hilabeteak igaro zituen alaba ezagutu barik. Familiako gizon gehienak marinela ziren. Behin nire birraitite Manuel Bilboko portura bisitatzera joan zen nire birramama Celsa. Bizkaiko industriaren loraldiak liluratuta, senarrari esan zion: “Hemen etorkizun hobeagoa izan dezakegu”. Barakaldora migratu ziren hiru alabekin, suhiekin eta lehenengo lobarekin, nire amarekin. Galiziako Zentroak bizitza errazten zuen pisu batean egokitu ziren, denok elkarrekin, senar-emazte bakoitza etxe bat erosteko gai izan zen arte.

Uda-garaian, familia osoa Boirora itzultzen zen oporrak pasatzera. Arousa udaldi gune bilakatu zen Bilbo bezalako industria hirietara migratutako familientzat. Etxebizitza berriei gain, taberna kopurua ere biderkatu egin zen; gehienak droga-trafikoa estaltzeko balio zutela azaldu zidan aititek txikia nintzela. 90eko hamarkada *Nécora* operazioaren garaia zen. 1998. urtean ere albiste izan zen Boiro, Ramon Samperdro idazle tetraplegikoak han gauzatu baitzuen hiltzeko eskubidea.

Niretzat Boiro hondartza, janari goxoa eta kanta alaien (*Bailaches Carolina, bailaí sí señor...*) sinonimoa zen. Askatasunaren sinonimo. 13 urterekin Boiron hasi nintzen parranda egiten eta ligatzen.

Egun Googlen Boiro teklatzen baduzue, Wikipedia eta Udalaren sarreraren ondoren, 2017. urteko abenduaren 29ko albiste bat topatuko duzue: “*La joven de Boiro denunció que el detenido intentó meterla a la fuerza en un maletero amenazándola con un cuchillo*”.

Urtarrilaren 1ean esnatu, Twitterren sartu eta albiste batek eragindako hotzikarekin hasi dut urteberria. A Pobra do Caramiñalen –Boiro ondoko



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Urtarrilaren 1ean esnatu, Twitterren sartu eta albiste batek eragindako hotzikarekin hasi dut urteberria. A Pobra do Caramiñalen –Boiro ondoko herria– 2016an desagertutako udatiarraren, Diana Queren, hiltzailea da Boiroko neska bahitzen saiatu den gizona. Gazte horrek ihes egitea eta poliziarengana jotzea lortu zuen

herria– 2016an desagertutako udatiarraren Diana Queren hiltzailea da Boiroko neska bahitzen saiatu den gizona. Gazte horrek ihes egitea eta poliziarengana jotzea lortu zuen.

Gertakari beldurgarri batekiko gertutasunak, “biktima ni izan ninteke” sentsazioak, barrua astintzen digu. Albistearen benetakoa bihurtzen da, gorpuztu egiten da.

Diana Quer desagertu eta astebete ondoren Boiron egon nintzen. Gure auzoko paretak bere argazkiaz josita topatu nituen. A Pobra do Caramiñaleko urmaeletan helikopteropean bainatu nintzen. Nire amamak, *Telecinco* piztuta, “neska gizajoa” errepikatzen zuen etengabe, sasi-kazetariak familiaren trazu zikinak zabaltzen zituzten bitartean. Nire aititek haxe erantzuten zuten: “Ez da bizirik agertutako, gizon zerriren batek hil du”.

Orain ni naiz Diana Quer burutik kendu ezin nabilena. Nire memorian Nagore Laffage du bizilagun. Sanferminetan eta Malagako Ferian talde-bortxaketak salatutako bi neskak ere ditut gogoan. Hedabideek eta justiziak bien sinesgarritasuna eta morala ezbaian jarri dituzte. Bizirik diraute, baina nola sendatu epai publikoaren zauriak?

Bortxatua izan ala hil. Hil ala susmopean bizi. Txikitatik jasotzen dugun abisu horri terrore sexuala deitu dio feminismoak. Nire amamak, *Telecinco*-ko albistegia piztuta, maiz esaten dit: “Azkenean ezin izango duzue etxetik bakarrik ateratu”. Nerea Barjola ikerlariak gogoratzen du Alcazarraren krimenen ondorioz neska belaunaldi oso batek auto-stop egiteari utzi ziola. Auto-defentsa bidelagun, gure askatasuna defendatzeko diskurtsoa eta baliabideak garatzen eta konpartitzen ditugu feministok. Diskurtsoa argi daukat. Baina nire gorputzak hotzikara sentitzeko, izua onartzeko beharra dauka. ■

Graziarik ez duen herria, geurea

Batuetan laidotua eta bestetan Gabriel laudatuak haxe idatzi zuen orain berrogeita hamar bat urte: “Nire grazia Aresti da”. Bilboko itsasadarri so, poetak esan zuen bataioko grazia horixe zuela: Aresti. Beharbada, irakurri egingo zion *Xenpelar* errenteriarri, hark honela kantatua baitzuen han eta hemen: “Mari Bentura dauka grazia”, dama gazte bat identifikatzeko. Edo, Ayesta zeberioztarrari, hark bere buruaz ziharduela *Auspoa* liburutegiko ale zahar batean: “Lino Ayesta, nire grazian datua”.

Bataiarrikoa gogoan hartuta, “zelan deitzen zara?” itauna entzuten da egun. Baina, pertsonak eta gauzak ez dira deitzen. Deitu, izendatu, egiten ditugu. Ez da berezko deus inoren ezta ezeren izena. Guk emaniko zerbait da. Eta, zer garrantzitsua da konturatzeko ez dela ekintza neutral eta aseptikoa inori edo ezeri izenaren berniza –grazia– ematea.

Hona arduratzen nauena: nire ustea da gure herriak ez duela erabat asmatu bere grazia besterenganatzen; eta nago, etxean ere arazo bat baino gehiago duela bere graziakin, bere izenekin, bere izendapenekin.

Gabonak pasa berri direla, bada ustea aitortzeko ezen xanpaina eskatu geniola Penedèsko enpresa bati: etxera



Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Nire ustea da gure herriak ez duela erabat asmatu bere grazia besterenganatzen; eta nago, etxean ere arazo bat baino gehiago duela bere graziakin, bere izenekin, bere izendapenekin

igortzeko sei botila. Eskatu genien botila denak katalanez etiketaturik bidaltzea, hala eskaintzen baitzuten euren webgunean. Egia esan, xanpaina eskatu genien –ardoa ez ezagutu arren– etiketa katalanera hutsez idatzita zeukatelako.

Igorri egin zizkiguten katalanek, igorri, euren mahats prentsatuak, katalanez etiketaturiko botila eder askoetan... *Vizcaya* delako paraje batera, baina. Esan genien halako lekuri ez zela gure artean aspaldi. Hartara, xanpaina fakturatzeko, arren, *Bizkaia* izendapena ofizialki onarturik daukan lurraldera.

Ba, ez. Ezta erantzun ere. Leku-izenen zerrendetan ‘uvea’ baizik ez haiek... Azkenean, *País Vasco* delako batera igorri zizkiguten ardo apartsua eta ordainagiria. Gozoa-edo, ardoa. Ozpin askoa, faktura.

“Kanpoztarrak, badakizu. Nahikoa egin dute”, esan zidaten etxean. Nahikoa egin ote dute? Horra nire duda. Eta ez bakararra...

Bizkaia, Euskal Herria... Nahikoa egin eta egiten ote dugu guk geuk geure grazia kanporatu eta munduratzeko?

Zer egin, onar dadin geurea, geurera? Ez ote gaude aldra baten, lobby baten, beharrean euskaldunok, geurea besterenganatzeko: nola produktuak, hala izendapenak?

Mailingak egiten dituzten enpresa eta erakunde horiek –bertokoek nahiz haragokoek– izan behar dute gure graziaren berri. Nahikoa ez bada ere, guk euskaldunok hor eragin ezik... ■

URTARRILAK 19 - MARTXOAK 17

BAT-BATEKO 14 TALDE IDATZIZKO 17 TALDE

14 KANPORAKETA, 3 FINALURREKO ETAPA FINALA

350 PARTE HARTZAILE

www.bertsozale.eus/araba

Irazokiren ispiluak



Fermin Erbiti
KAZETARIA

ruñeko TVEren egoitzan ezagutu nuen, duela ia hogeita hamar urte. Ni etxe hartan egiten zen lehen (eta azken) euskarazko saioaren ardura-duna nintzen. *Astean Behin* programara gonbidatua nuen olerkaria: Francisco Javier Irazoki. Tipo txikia zen, bizarduna; janzkeran-eta, ordurako zaharkitua zegoen hippy itxurakoa. Telebistaz eta poesiaz gutxi zekien kazetari gazteari gizon misterioitsua, isila, atseгина eta sentibera iruditu zitzaion.

Oker ez banaiz, EHUK argitaratzen zuen olerki bildumako ale elebidun haietakoa eskainia zion, gaztelaniazko poemen parean euskarazko itzulpena ere emanez. Eskarmentu gutxikoa izanagatik, aurkezleak bazuen kazetaritzaren oinarritzko lezioaren berri: komunikazioak funtzionatuko badu, kode bera erabiltzen duten solaskideak behar dira. Oinarritzkoak huts eginda, jakina, hura nekez izan zitekeen elkarriketa gogoangarria.

Nuccio Ordine filosofoak *L'utilità dell'inutile* liburu interesgarrian berehalako etekina ematen ez diguten jakintzak aldarrikatzen ditu, poesia horien artean: "Poesiaren barnean bada lurrin moduko bat, edo argi bat, guztion gozagarri. Baina horretaz ohartzeko, eta horrekin gozatzeko, beharrezkoa da trebatze lan bat egitea". Poesia liburuen ale kopuruari erreparatzea aski da konturatzeke: gehienok egin gabe daukagu trebatze lan hori.

Kontua da olerkaria, handik gutxira, Euskal Herria utzi eta Parisa joan zela. Gure mendialdeko paradisuak infernu handiak ezkututzen dituztela esana zigun prosa itxurako poema liburu batean. Geroztik, Frantziako hiriburuan bizi da literatura-ri eta musikari emana, noizean behin kritikaren txaloa merezi duten liburu bitxiak argitaratuz.

Azkenak *Ciento noventa espejos* du izenburu, beste horrenbeste hitzez osaturiko testuekin egin. Urte berriko helburuen zerrendan sartu bainuen hutsen aitortza, onartu egingen dut: Savater, Aranburu eta beste batzuen lausenguak irakurrita kosta egin zitzaidan liburua erostea. Ez naiz damutu. Lesakarrak "prosan idatziriko sonetotzat" hartzen dituen testuotan era askotako gaiei buruzko hausnarketak daude: irakaspak, bidaiak, literatura, musika, lagunak... Eta hori dena lerroetan barna eroso eramaten gaituen gaztelania ederrean idatzia. Irazokirenak poliki zizelkaturiko testuak dira, pazientzia handiko artisau batenak: handik eta hemendik kendu, mezua ahalik eta argien eta dotoreen emateko.

Gozatu egin dut lesakarraren ispiluekin, alean utzi dudaz azpimarra kopuruak erakusten duen bezala. Horietakoren batekin amaitzea pentsatua banuen ere, ez da posible. Haren testuak 190 hitzetara mugatuak dauden bezala, lerrook sinatzen dituenak ezin du 330eko marra gainditu. ■

Sarraskia



Itxaro Borda
IDAZLEA

Emile Zola *la curée* edo sarraskia deitzen zion 1871ko *Commune* haren ondotik Paris bere iraultzari anarkistez garbitzeko Thiers burgesaren soldaduek eraman hilketa eta bortizkeria oldeari. Odola isuri zen, Kanakiara (Kaledonia Berria) igorri ziren buruzagiak, Louise Michel handia barne. Gure historia da.

Notre Dame des Landesko Defentsarako Gunea menturaz hustua dateke zutabe hau irakurriko duzunerako –edo ez, nork daki–. Naoned-eko (Nantes) aireportuaren emendatzea ekiditeko, 2009az geroztik, bertan egitura sozial berria errotu da, ekonomia gurbilaren praktika, bizimodu eta harreman ezberdinen eredua, kontsumo

gizarte frustratuaren bihotzean. Baina botereak eta enpresa multinazionalak ez dute afera begi onez ikusten eta erasorako prestatzen dira.

Hala ere, aitzinetik aburu-ikerketak egin dute eta kazeta guztietan ageri dira emaitzak: frantse- sen %62 hippy gisako kide alferrek indarrez eta bortxaz hortik kanporatzearen alde daude.

Jakina, jende arruntak ez du maite bera bezala bizi ez dena, eguneroko gorotzean itotzen ez doana, *Lactalis*-en esne zitara edaten ez duena, lane- ra diesel autoarekin ez datorrena, jende arruntak ez omen du ezer maite.

Sarraskia, ezberdinen kontura, hori aldiz bai, maite du. ■

Sustraiak

Orain dela urte zenbait kontatu zidatenez, nire amonak ozta-ozta eta mirakuluz salbatu zuen bizia Gaztelako bere herriko plaza nagusian. Gerra Zibil bete-betean, jantzi gorritz joan zen iturrira ur bila, eta fusil nazionalak balaz josia izateko zorian izan zen zio horrengatik. Soldaduen “gorria, gorria” oihuek eta zalapartek ohartarazita, auzokide batzuk balkoira irten ziren eskatzera bakean utz zezaten, ezaguna zutela eta haren kargu egiten zirela.

Guadalajara probintzian faxistek hil zituzten milaka pertsonak baino zori handiago izan zuen nire amonak. Askatasunerantz bidea urratu zuen lurraldean ez zen Errepublikaren ez demokraziaren aztarnarik geratu. Den-dena suntsitu zuten, baita 40 urteko gau frankista luzarazteko izu eta isiltasun “errezeta” ezarri ere.

Lur errearen estrategiak suntsitutako eremuetan ezkerria ez zen loratu berriz ere, politika jendearen bizitzatik kentzea lortu zuten irabazleek. Pertsona horietako asko, nire ama bezala, bizitza hobeago baten bila joan ziren herritik, baina beti itzultzen dira beren etxea betiko izaten denera. Euren semeak, ni bezalakoak, gure haurtzaroaren parte handia bizi izan dugu galburu doratuz betetako soroetan lasterka, baita negarrez ibili ere itzulbidea antzeman gabe joaten ginenean.

Katalunian azken hilabeteetan gertatutakoaren ondoren, gure jatorrira itzultzean aurkitu genuenak kezkatu gintuen lehen aldiz. “*A por ellos*” delakoak izututa, urriaren 1eko borra-kolpeek minduta, TV3ren eta eskola katalanaren inguruko gezurrek haserre, ibilbidea zeharo bihurria egin zitzaigun.

Independentismoak eragindako “zatiketa soziala” delakoaren aitzakian jo eta ke gogaitu gaituzte, badirudi ametsa errealitate bihurtzea lortu dutela az-



David Bou

LA DIRECTA-KO KAZETARIA

@dvdbou

Independentismoak eragindako “zatiketa soziala” delakoaren aitzakian jo eta ke gogaitu gaituzte, badirudi ametsa errealitate bihurtzea lortu dutela azkenik. Gorrotoa elikatu dute hurkoen artean, baita jendartea polarizatu ere, jakin baitakite gure arteko konfrontazioa dela herri honen nahia leherrarazteko modu bakarra, aniztasunarekiko errespetua kohesio faktore nagusia izatea lortu duena

kenik. Gorrotoa elikatu dute hurkoen artean, baita jendartea polarizatu ere, jakin baitakite gure arteko konfrontazioa dela herri honen nahia leherrarazteko modu bakarra, aniztasunarekiko errespetua kohesio faktore nagusia izatea lortu duena.

Behin honaino ailegatuta, Errepublika Katalanak bere populazioaren erdiaz baino gehiago erdieste lortu ez arren, segi dezagun eraikitzen maitasunetik.

Horrexek ekarri gaitu honaino eta horrexek bakarrik lagunduko digu aurrera egiten. Ez ditzagun inoiz kolpeak ahan-tzi, ezta irainak eta espetxeak ere, baina ez dezagun eragin –ezta desio ere– jasaten ari garen mina: mundu berri bat daramagu gure bihotzetan, gure baitan geratzeko heldu dena.

Bere balkoian bandera gorri-horia zintzilik paratzen duena ez da “fatxa” bat, eta Bartzelonako Metropoli-barrutian Ciudadans-i botoa eman dioten milaka eta milaka langileak ez dira “ez-jakinak” eta ez daude “manipulatuak” ere. Gure ardurei uko egiten badiegu, guri gustatuko litzaigukeen bezala pentsatzen ez dutenak demonizatuz eta estigmatizatuz, gu suntsitzeko darabilten espiral baztertzailer bera erabiliko dugu.

Duela bi aste, amaren herriko nire lagunak iragan hilabeteetan bizi izan nuenaren nire errelatoa entzun ahal izan zuten. Beharbada, ez dute nire ideiekin bat egiten, baina errespetatzen naute eta konfiantza dute nire azalpenetan. Egun horietan politikaz hitz egin dugu, eta hori, berez, lorpen bat da: horren alde bizia galdu zutenen memorian, gure eta etorriko direnen alde. Ez dakigu zer gertatuko den hurrengo hilabeteetan, baina ziur naiz berriz ere, lehenago edo geroago, gorritz jantziko naizela, nire amona zena bezala, Espainiako Plazatik berriz ere pasatzeko. Ez dut inoiz onartuko beren gorrotoak nire sustraiak ustel ditzaten. ■

ARGIA 2018ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

Eskatu orain ARGIAren egutegia.

Ba al zenekien?...

Hizkuntza gutxituak munduan

Umorea

Historiako emakumeak

Euskal Herriko pegatak

Mikroipuinak

Baratzerako trikimailuak

ARGIAren esanak

Egutegia

9€

50€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

Montpellierren erakutsi dute ERRAUSTEGI BERRIAK ERE KANTZERRA UGARITZEN DU

Baina egia al da hondakinak erraustek jendea hil dezakeela? Eztabaida berotzen ari da berriro Frantzian. 2017ko abenduan epaitu dituzte Vaux-le-Penileko erraustegi zaharraren arduradunak, inguruko herritarrak dioxina eta bestelakoz kutsatu izanagatik. Baina puntako azken teknologiak daukatenak ere auzitan daude, Montpellierreko ikerketa epidemiologiko batek erakutsi duenez. ARGIA bertan izan da galdezka.



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

“Kantzer kasu gehiago Lunel-Vieleko erraustegiaren inguruan” (*Surincidences de cancers autour de l'incinérateur de Lunel-Viel*) titulatu zuen *Midi-Libre* egunkariak 2016ko urriaren 13an. Sud-Ouest taldekoa, *Midi-Libre* esatea Montpellier inguruan *Diario Vasco* edo *Correo* esatea da. Prisca Borrellek sinatutako kronikak zioen: “Hérault departamenduko tumoreen erregistroaz azken azterketa ezagutu da. Ez da Ocréal erraustegiarekiko zuzeneko loturarik demostratu baina patologiak hor dau eta ondorioak kezkarriak dira. [...] Bai, minbizi kasuen ugaritzea izugarria da eskualdean, baina ez dago frogatuta erraustegiagatik denik”.

Irakurleak gatazka kokatzeko: Donostiatic 580 kilometrora –bost ordu eta erdira kotxez joanda, Marseillara bidean– Hérault departamenduan Montpellier hiriak 280.000 biztanle dauzka, metropoliak 590.000 biztanle biltzen ditu. Hondakinak kudeatzeko dauzka, azpiegitura gehiagok gain, Ametyst TMB planta eta hiriburutik 15 kilometrora Lunel-Viel herriko erraustegia. Bion inguruan dago eztabaida, baina iritziz publikoa bereziki kezkatu duena erraustegia da.

Surincidences de cancers autour de l'incinérateur de Lunel-Viel

PRISCA BORREL

CET ARTICLE EST RÉSERVÉ AUX ABONNÉS

ABONNEZ-VOUS À PARTIR DE 1€

À LIRE AUSSI

Incinérateur de Lunel-Viel : "Si on peut fermer un four, on le fera"

JOURNAL DU 18 JANVIER 2018

Montpellier ils pétitionnent pour défendre les arbres de Montcalm

Midi Libre

Montpellier ils pétitionnent pour défendre les arbres de Montcalm

C'est non !

NON À L'AÉROPORT DE N.D.

Le registre des tumeurs de l'Hérault a rendu son dernier rapport. Aucun lien direct n'est établi avec l'usine d'incinération d'Ocreal, mais les pathologies sont là. Et les conclusions, troublantes.

Attendue comme le Messie, la dernière étude descriptive des cancers dans la zone centrée autour de l'usine d'incinération de Lunel-Viel est encore une fois très mitigée. Pas de réponse claire en somme. Oui, le nombre de cancers

INVS Frantziako Osasun Publikoaren Institutuak eskatuta burutua zen hau-tsak harrotu dituen dossierra: “Herault departamenduko tumoreen erregistroa: etxeetako zaborrentzako Lunel-Viel udalerrian dagoen erraustegiaren gune geografikoko kantzerretan zentratutako azterketa deskriptiboa”. 2010ean martxan jarri eta geroztik berrikuntza ugari gehitu dioten erraustegiaren ingurua aztertu zuten lau eremutan: fabrikatik 5 kilometro arteko ingurunea, 5etik 10 kilometro artekoa, 10etik 15 kilometro artekoa eta haizeen joera nagusiek eragindako eremua.

*Midi-Libre*k tentu handiz “erraustegiarekiko zuzeneko loturarik demostratu” ez zela esan arren, agintariak behartuta aurkitu ziren eskualdeko Osasun Agentziari berri ematera, eta honek Lunel-Vieleko erraustegiaren jarraipen batzordearen bilera deitu zuen 2017ko apirilaren 24an, tumoreen erregistroak aurkitutakoa aztertzeke, alegia, erraustegitik 5 eta 15 kilometro arteko eremuan ageri dela zenbait tumoreen ugaritze nabarmena: Ez-Hodgkin linfomak, ehun bigunetako sarkomak, leuzemiak...

Agintariak bildutako batzordean dago AMIES Ingurumenaren eta Osasunaren aldeko Medikuen Elkartearen ere, aspalditik ikertu eta salatzen dituen Lunel-Vieleko erraustegiaren arriskuak. Francis Glemet farmazian doktorea da AMIESen bozeramailea, eta Frantziako Gobernuaren solaskideetako bat den CNMSE Osasuna eta Ingurumenaren aldeko Medikuen Koordinakunde Nazionalaren bozeramaile ere bada.

Glemetek ARGIA errezipitu du bere etxean, berretsi dizkigu hainbat elkarrizketa eta hitzalditan esandakoak, eta Lunel-Vieleko Ocreal erraustegiraino eraman gaitu. Han bertan adierazi duenez –bideoz bilduta daude Glemeten hitzak–, kutsadura Europak ezarritako mailaraino mugatzeko aurrerapen guztiak dauzka... eta hala ere alarmak piztu ditu.

Herault departamenduak deitu zutenean, iazko udaberrian, erraustegiaren jarraipen batzordea, AMIESek bi aditu independente ezagun eraman zituen

» Erraustegiaren inguruan ugaritu dira Ez-Hodgkin linfomak, ehun bigunetako sarkomak eta leuzemiak

» “Hondakinen kudeaketan bestelako metodoetara aldatu ezean, osasun alorreko hondamendira goaz, diruz eta jendearen osasunez garesti aterako zaigun katastrofera, dioxinak eta horien hurbileko kutsagarriak disruptore endokrinoak direlako”

» Sultan doktorearen aburuz, erraustegiei ezartzen zaizkien kutsadura mugak zaharkituta eta motz geratu dira, ez dituzte biltzen azken hiru hamarkadatan zientziak ikasi duena ez disruptore endokrinoen mekanikaz, ez kutsagai askoren pilaketaren eraginez

» 2017an presio handiak jasan dituzte Lunel-Vieleko labeak auzitan jartzen dituzten aditu eta medikuek

beren lekukotasuna eskaintzera: Michel Sultan pediatria endokrinologoa eta Mariette Gerber Montpellierreko Kantzer Institutuko ikertzailea.

“Sultan doktoreak esan zuen –kontatu du Glemetek– ez bada zerbaitek azkar egiten, hondakinen kudeaketan bestelako metodoetara aldatu ezean, osasun alorreko hondamendira goazela, diruz eta jendearen osasunez garesti aterako zaigun katastrofera, dioxinak eta horien hurbileko kutsagarriak disruptore endokrinoak direlako”. Adituek, gainera, nabarmendu zuten minbizien erregistroaren jarraipena ez dela gaiaren zati bat baizik, bai minbiziei dagokienez eta zer esanik ez errausketak eragin ditzakeen beste hainbat eritasunez, esaterako haurrek jaiotzean dakartzaten uretrako malformazioak, “hauen arriskua 3 bider handiagoa baita erraustegien inguruetan gainerako lekuetan baino”.

Sultanek dioenez, arazo larrienak behar bada ez dira ikusiko ondorengo hamar-hamabost urteetan, “baizik eta bi edo hiru belaunaldi berandua-go, Distilbenoarekin gertatzen ari den moduan”. Distilbenoa (Diethylstilbestrol) hormona sintetiko bat da, 1940tik 1970era artean AEBetan eta Europako zenbait herrialde aurreratutan –horregatik ez garai hartan Hego Euskal Herrian– emakume askori haurdunaldian eman zitzaiena ustez abortu arriskuak saihesteko; 1971n galarazi zuten kalteak hartu zuen amari ez baina alabei eta bilobei eragiten dizkien botika kaltegarri hau.

Sultanen aburuz, erraustegiei ezartzen zaizkien kutsadura mugak –labeek isuritako bi mila pozoietatik lau dozena baino ez kontrolatzeaz gain– zaharkituta eta motz geratu dira, ez dituzte biltzen azken hiru hamarkadatan zientziak ikasi duena ez disruptore endokrinoen mekanikaz, ez kutsagai askoren pilaketaren eraginez.

Erraustegi zaharretan eta berrietan, kantzer mota berak

AMIES elkarteak aurkeztu duen bigarren aditua Mariette Gerber doktorea da. Narbonan mintzatu da ARGIArekin. Gerber ezaguna da erraustegiek osasunean dauzkaten eraginez interesatzen diren medikuen artean: Montpellierreko Kantzer Institutuentzako 2003an egindako ikerlan ezagun batean erakutsia zuen errausketaren eta emakumeen bularre-

Herault departamenduko hedabide nagusia den “Midi Libre” egunkariaren albiste nagusia 2016ko urriaren 13an.



PELLO ZUBIRIA

ko minbizia gehitzearen arteko lotura, zehazki Sète eta Perpinyàko erraustegien inguruan, Montpellierretik hurbil. Aurreko belaunaldiko erraustegiak zeuden haietan, 1972 eta 1990 artean erakitakoak, eta haien inguruan ugaritzen ziren mielomak, Ez-Hodgkin linfomak, bularreko eta biriketako minbiziak. Lunel-Vieleko erraustegi modernoagoaren inguruan antzeko argazkia osatzen ikus-teak, gaixotasun berdintsuekin, atenzioa deitu zion Gerber doktoreari.

Bi kasuetan, gainera, erraustegi zaharretan bezala berrietan, bularreko minbiziaren kasuan paradoxa bera aurkitu dute ikerketek: erraustegitik 5 kilometro baino gutxiagoko eremuan minbiziak ez dira ugaritzen eta bai, aldiz, 5 eta 15 kilometro artean. “2003ko ikerketa hartan demostratu genuen kantzerrik ugarienak ez direla gertatzen justu dioxina pilak handienak diren eremuetan. Disruptore endokrinoek ezaugarri hori dute, dosi ertain eta ahulagoetan eraginkorrak izatea. Dosi handiagoetan giza gorputzaren errezeptoreak blokatzen dituzte, hala frogatu zen Sevesoko istripu larri hartan ere”.

Glemer doktoreak ohartarazi du kantzerreren benetako errealtatea gordinagoa dela agintariekin erakutsi duten Errejistroak biltzen duena baino. Analisi epidemiologikoa desitxuratu du erraustegia martxan jarri ondorengo lehenengo urteak kontatu izanak: kutsagarrien ondorioak 10 edo 15 urte beranduago azaltzen direla jakinda, 2000n

hasitako arazo baten kalteak 2005etik aurrera hasiko dira agertzen, askoz beranduago arte jarraitzeko. Horregatik, dio Glemerrek, minbizien ugaritze errealak datu horietakoa baino handiagoa izan behar du errealtatean.

Glemerrek bere lekukotasunean argudiatu zuenez, agintariekin Lunel-Vieleko aferan bi aukera dauzkate. Edo ikerketa berriak egiten dituzte, baina hori diru asko kostatuko da eta denbora pasako da bien bitartean. Edota prekaizio printzipioa aplikatu behar dute eta erraustea eten.

Jaiotzerakoan malformazioak

Minbizia ez da, ordea, hondakin erreketak eragiten duen kezka bakarra. Michel Sultan Montpellierreko Ospitale Unibertsitarioan endokrinologia pediatriko saileko arduraduna da eta 2015ean bera buru duen ikerketa taldeak hurrek kutsaduragatik jaiotzean ekar ditzaketen malformazioen azterlan bat argitaratu zuen *European Urology* aldizkarian. Zehazki, aztertu dituzte hipospadias izeneko malformazioa dakarten mutikoak: zakila gaizki formatua ekartzeaz gain, pixa egiteko zuloa ere ez dakarte behar den lekuan. Sultanen ekipoak erakutsi duenez, hipospadias kopuruak ohikoen dobleak dira erraustegien 5 eta 10 kilometro arteko eremuetan.

Hainbat elkarrizketa, idatzi eta hitzalditan Sultanek ohartarazi du pestizida, kosmetiko eta bestelako kutsagarri endokrinoen arriskuez: “Gure zerbitzuan



ez da inoiz gaur adinako mikro-pene kopururik ikusi mutiko jaioberrietan”. Paraleloan, neskatoetan ugaritzen dira hileko eta bularren hazte goiztiarrak eta hormona sistemaren nahasteak eragindako beste arazo asko. “Kalteak gutxienez bi-hiru belaunaldiz iraun dezakete eta gizon antzuak sortzen ari gara, hau bonba bat da”, dio Sultanek. Gaixotasun gehiagorekiko loturak azalduko direla ziur dago: “Dioxinek eraginik handienak dauzkate gaixotasun endokrinoetan, tiroidea, diabetesa, obario eta testikuluaren malformazioak... Gaur badakigu dioxinek kalteak eragiten dizkiotela ugalkortasunari, baina hau ez da icebergaren puntta baizik”.

Lunel-Vieleko erraustegiaren historia gatazkatsua

Lunel-Vieleko Ocréal errauste planta 1999an jarri zuen abian Entre Pic et Etang eskualdeko herri elkargoak. Bere bi labeen artean urtean 120.000 tona zabor nahasi kiskaltzeko dago prestatua. Suez Environment multinazionalaren adarra den SITA (lehen Novergie) korporazioak kudeatzen du. Suez-SITAk erraustegiak mundu osoan dauzka eta bereziki indartsua da bere sorterrian, Frantzia, milioika biztanleren milioika tona zabor bildu eta kiskaliz. Suez esatea da munduko zerbitzu publikoen kontratatutako liderretakoa den multinazionala izendatzea: 15.200 milioi euroko sarrerak 2016an, 623 milioiko irabazi garbiak, 82.300 langile...



GREENPEACE



PELLO ZUBIRIA

Beste erraustegi askorena bezala, Lunel-Vielekoaren historia ere gorabehera eta gatazkaz betea dago. 1995ean agintariak eskualdeko proiektua diseinatzeko hasi zirenetik, ugariak izan ziren herri-tarren mobilizazioak haren kontra. Gorabehera askoren ondoren 1999an martxan jarrita, 2005ean prefetak geldiarazi zuen araututakoa baino dioxina gehiago isurtzeagatik; hiru hilabetez eduki zuten zerraturia. Tartean obra garestitu ere egina zen: hasieran aurrekontuan kalkulaturako 39 milioiak denborarekin 80 milioitara iritsi ziren, Berdeak eta beste zenbait taldek salatu zuten.

Berriro martxan jartzeko baimena lorturik, 2007an anulatu zuten epaileek. Heraulteko prefetak hilabete behar izan zuen behin-behineko baimen berria emateko. Hainbat elkarte auzitara jota, azkenean Estatu Kontseiluak 2011n erabaki zuen prefetak emandako baimen guztiak legearen kontrakoak zirela, ingurumenari egindako kalteen ebaluazio txukunik ez zeukatelako.

Parisko epaile gorenak eta Estatu Kontseiluak hautemandako bestelako okerrak zuzentzeko inbertsio berriak egin zituzten erraustegian, beti ere haren jabe den Entre Pic et Etang mankomunitateak pagatuta, herritarrek beren zergaz alegia. 2011n Laurent Radisson kazetariak *Actu-Environnement* kazetan idatzi zuenez, “1995eko hasierako kontratua sei aldiz aldatu zuten 1997 eta 2000 artean, ondoren beste lau aldiz gehiago 2003 eta 2007

» **MARIETTE GERBER:**
“2003ko ikerketa hartan demostratu genuen kantzerrik ugariak ez direla gertatzen justu dioxina pilak handienak diren eremuetan. Disruptore endokrinoek ezaugarri hori dute, dosi ertain eta ahulagoetan eraginkorrak izatea”

» **MICHEL SULTAN:**
“Kalteek gutxienez bi-hiru belaunaldiz iraun dezakete eta gizonezko antzuak sortzen ari gara, hau bonba bat da”

» **FRANCIS GLEMET:**
“Zer egin behar dugu kalteen datuak agertzen hasi direnean, 10 urtez gehiago jarraitu jendeak kutsatzen?”

Ezkerretik hasita, Mariette Gleber, Michel Sultan eta Francis Glemet doktoreak.

artean”. Hala eta guztiz ere, 2012an prefetak berriro eman zion baimena Suez-SITaren plantari.

Lobbyen presioa eta polizien errepresioa

2016ko udazkenean zabaldu zuen prentsa departamenduko kantzer erregistroak aurkitutako berri eta, hasieran esan dugunez, 2017ko udaberrian deitu zuten agintariei erraustegiaren jarraipen batzordea. Baina eztabaidak beste jauzi bat egin du azaroaren 29an, jarraipen batzordea berriro bildu denean. Tarte horretan zerbait gertatu da, zeren eta osasun agintariei erabaki dute udaberrian zenbait tumoreren ugaritzea ikusten zen ikerketan orain ez dela ezer nabarmenik ageri. Bertan behera utzi dituzte ikerketa gehiago egin eta erraustegiaren inguruko udal agintari eta herritarrekin informazioa partekatu eta elkarrikketa saio bat irekitzeko planak. Zer dela eta?

2019an agintariei dagokie erabakitzea erraustegiaren kontrata berritzea eta industrialek bezala administrazioak ondo lotu nahi dute kontua, hondakinak errausteko baimena 2030era arte iristen delako. Europa osoan bultzaka ari dira kontrata publikoen eta erraustetaren lobbyak eta erabakiak hartzeko unea iritsitakoan, Parisko gobernuaren

ordezkari boteretsuak diren prefetek gogor egiten dute. 2017an presio handiak jasan dituzte Lunel-Vieleko labeak auzitan jartzen dituzten aditu eta medikuek. AMIESeko bozeramaile Francis Glemetek ARGIAri aitortu dio berari berriki gertatutako hau. Lunel-Vieleko udalarekin elkarlanean mahai-inguru bat antolatu dutenean adituen iritzia entzuteko, poliziaren RG Informazio Brigadaren deia jaso zuen etxean, bileraren xehetasunez galdezka, ea “bazterrak nahasteko asmoa zuten” galdezka. Frantzian inork ez du bromatan hartzen Renseignements Généraux-en dei bat.

Medikuak ez dira isildu: “Zer egin behar dugu kalteen datuak agertzen hasi direnean, 10 urtez gehiago jarraitu jendeak kutsatzen?” galdetzen du Glemetek. “Eskualdeko agintariei aipatzen diegu badaudela hondakinak bestela kudeatzeko moduak, begiratzeko San Franciscoko Zero Zabor ereduari... baina erantzun digute ‘haiek haiek dira, eta gu gu gara’”. AMIESeko medikuek prekaizio pintzipioa aplikatzea eskatzen dute eta Lunel-Vieleko erraustegia berehala itzaltzea. ■



Lunel-Viel eta inguruko herrietako hautetsiak erraustegiaren atarian protestan.

CIDES-34

GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola, herri eta auzo txikiak bizirik!

ABALTZISKETA	ALTZO	EZKIO - ITSASO	OIKIA
ADUNA	ANGIOZAR	GABIRIA	OLABERRIA
AGINAGA	ARROA	IGELDO	ZERAIN
AIZARNA	BERROBI	IKAZTEGIETA	ZIZURKIL
AIZARNAZABAL	BIDANIA - GOIATZ	ITSASONDO	ZUBIETA
ALBIZTUR	EREÑOTZU	LARRAUL	
ALKIZA	ERREZIL	LIZARTZA	

www.eskolatxikiak.eus

Agus Hernan, Foro Sozial Iraunkorra

“Prozesua konplikatua da, baina modu baikorrean lantzen ari da”

Irur, 1962. Hendaiako Antxeta irratiko lehendakaria da. Foro Sozial Iraunkorreko koordinatzailea eta bozeramailea. Urtarrilaren 26 eta 27an foro berezia egingen dute Irungo Ficoban, iheslarien eta deportatuen egoera areago aztertzeko. Euskal presoek eskubideen alde 100.000 lagun inguru Bilbon manifestatu ostean aritu gara. Bake eta normalizazio prozesuaz, baita Frantziatik eta Espainiatik heldu diren azken berriez ere hitz egin dugu.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Frantziako Justizia ministerioak euskal presoek gaian aurrerapausoak emanen dituela eman du aditzera berriki.

Gure ustez, prozesua antsiarik gabe hartu behar da. Bakegileak lanean ari dira puntu horren gainean aspaldion, hau da, 59 presoren kasuen inguruan. Bakoitzaren egoera aztertzen ari dira, horren ondoren hainbat preso Euskal Herriaren inguruko presondegietara aldatuko duten berria heldu da. Ministerioak gaia, bi aldeak aztertzen ari zirela eman zuen publikoki, horrek aldebikotasun prozesuan egotea berresten du. “Ez dugu emaitza ikusgarririk espero behar” esan ohi du Foro Sozialak, prozesua iturri bat bezala ikusi behar dela. Iturria irekita dago, Iparraldean tanta batzuk isurtzen hasi dira, eta prozesua zabaltzen eta gauzatzen joango da. Justizia ministerioak ordezkatzeko duen estatuak harre-



manak ditu Espainiako Gobernuarekin, beraz, prozesua konplikatua da, baina modu baikorrean lantzen ari da.

Tantaka, baina prozesua aurrera doa.

Frantziako Estatuan keinu garbiak izan dira aspaldian. Esaterako, Baionako Ospitalera preso bat ekarri zuten iragan udaberrian. Mikel Irastortza, ETAko zuzendaritzako kidea omen dena Baionan bizi da...

Hori publikoki adierazia al da?

Irastortza atxilotu zuten Azkainen, eta Frantziako eta Espainiako gobernuak ETAko azken zuzendaritzako kide izan zuten. Baina, berari eman dioten kategoriaz harago edo honago, guretzat inportanteena epailearen jarrera izan da: ETA armagabetu ondoren, beste agertoki batean gaude. Lehen aldikoz, holako kargurik egotzen dioten pertsona bat epaiketaren zain kalean egotea oso adierazgarria

da. Beste elementu bat zazpi presori DPS estatusa (Preso Berezik Atxilotua) kentzea izan da. Logika guztiaren arabera, apirilaren 8an emandako urratsaren ondoren [ETAren armagabetzea] Frantziako Gobernua pasibotasunean egotetik urratsak ematera pasa da. Zentzu horretan ulertzen dugu prozesua.

Aldebiko prozesutzat jo al da?

Euskal Herriko bake eta normalizazio prozesua ez da aldebikoa, begi-bistakoa da. ETak bere erabakia hartu zuen bere kabuz, baina armagabetze prozesua Nazio Batuen Erakundearen (NBE) estandar integratuen parametroetan eman da, prozesu honetan ere armagabetzea nazioarteko prozesuen definizioen barnean eman da. Hamar parametro daude eta guztiak bete dira, osoki eta gardenki, Frantziako Gobernuaren baietzarekin, nazioarteko komunitatearen begiradapean. Horrek gizarte zibilari konfiantza eman dio.

Edonola ere, aldebikotasuna...

...nik esango nuke Iparraldeko bakegileak, hautetsiak eta Frantziako ministroaren artean badagoela aldebikotasun prozesu bat, prozesua gizarte zibilaren, instituzioen (Herri Elkargoaren presidente Jean-René Etchegaray izanez) eta EPPK-ren bitartez bideratzen ari da, noski, ez nuke esango negoziazio prozesuan ari direnik. Negoziazio hitzak Suitza, Norvegia edota Aljeriako garaietara eramaten gaitu, eta ez gaude horretan. Halere, ebazpen prozesu batean gaude.

Hegoaldean zertan da prozesua?

Aldeaniztun prozesu bat ari gara erakitzen. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta alderdiak -EAJ, EH Bildu, Elkarrekin Podemos eta PSE-EE- prest daude prozesuari ekarpenak egiteko, baita sindikatuak ere. Adostasun maila altua lortzen ari da.

Eusko Jaurlaritzako Bakea eta bizikidetzako idazkari nagusi Jonan Fernandezek Ipar Euskal Herriko bakegileen eta Paris-ko Justizia ministerioaren arteko bideak eman zezakeena zalantzan jarri zuen. Orain, aldiz, baikortzat jo du emandako urratsa.

Guk ez ditugu beste eragileen adierazpenak baloratzen. Hala ere, aitortu behar dut, Fernandezek adierazpen haiek Foro Sozialeko eragile batzuei ha-

rridura sorrarazi zieten. Nik elementu nagusi bat azpimarratuko nuke: Frantziako Errepublikaren sisteman oso da garrantzizkoa -Korsikan ikusten ari gara hori- Justizia ministerioak hautesiekin elkarrizketak izatea. Etchegaray Errepublikako ordezkaria da, bera da bakegileak taldearen burua. Bakegileak ez dira bakarrik gizarte zibileko kideak, elkarteak eta hautetsiak ere badira. Iparraldeko ordezkariaren burua Euskal Herriko hiru administrazio edota lurraldeetako baten lehendakaria da.

Beraz, “ezina ekinez egina” leinari tinko.

Foro Sozialean ari garen hainbat eragileei haxe entzun nien hasieran: “Hori amortizatuta dago”. Orain, armagabetze bezala, presoen inguruan akordio integral baterako lehen akordio partzialak lortzen ari gara, beraz, egoera politiko-soziala ez dela amortizatu ikusten ari gara. Gizarteak armagabetzea nola hartu zuen ikusi besterik ez dago. Euskal Herrian inork ez du zalantzan jartzen ETA armagabetu denik. Ondoren, heda-bideek izugarrizko arreta jarri dute gure zereginetan. Guk espero dugu ETAren desmobilizazioarekin antzeko urrats bat ematea, biktimen, presoen, deportatuen eta iheslarien auzian aurrera egiteko.

Kurtso politikoa amaitu aurretik ETA “desmobilizatzea” espero duzue. Kontzeptuak berak eman du zeresana.

Bai noski, baina desmobilizazioa NBEk sortutako kontzeptua da, gatazka bortitzen ebazpenetarako balio duena, hiru dira kontzeptu nagusiak: armagabetzea, desmobilizazioa eta birgizarteratzea. Armagabetzea parametro horietan eman da. Guk ez dakigu ETak zein hitz erabiliko duen bere erabakia plazaratzerakoan. Ez dakigu, Euskal Herriko gobernuek, alderdi politikoek edota sindikatuak erabaki hori zein hitzekin kalifikatuko duten ere. Guretzat inportantea bi elementu hauek dira: Lehena: ETak esango duena argia eta konklusiboa izatea. Bigarrena: erabaki horretan, bizikidetzak sustatzeko hiru ezaugarri izatea: irakurketa kritikoa, partekatua eta eraikigarria.

Urtarrilaren 8an ETAko kide Olarra Guri-direkin bildu zinen Granadako Albolote kartzelan. Zein testuingurutan?

EPPK-ren mintzakideekin bilera bana eskatu dugu bi estatuetan. Erantzunik

jasotzen ez genuela ikusita, prozesua aurrrera doala ikusita, baldintzak onak izan ez arren, erabaki genuen berau “bisita moduan” gauzatzea. Bisita 40 minutukoa izan zen, baina ez baldintza onetan, kristala tarteko zela hitz egin genuen. Hiru puntu landu genituen eta horiek aditzera eman ere. Gero, hedabide bakoitzak puntuei azentua jarri die moduz ezberdinetan. Lehen puntua: EPPK-ri alderdi eta sindikatuarekin daramagun lana azaldu diogu, elkarrizketa aldeaniztunean ari garela. Puntu horrek eragile guztien eta EPPK-ren artean bide-orri transbertsala lantzea helburu du. Bide-orri bat eraikitze bakoitzak baldintza beharrezkoak dira, horiek erraztuko baitute geroan bizikidetzaren gaia, baita presoen arazoa konpontzeko modua ere.

Presoak pausoak ematen hasiak dira espetxeko legediaren barruan. Euren artean kohesiorik ba al dago?

Nik ez dakit preso bakoitzak zer bozkatu duen, ezta norberaren jarrera EPPK-ren dinamikan zein den. Seguru asko, egun 300 preso badira 300 iritzi daude. Nik modu positiboan baloratzen dut hori. Olarra Guridik esan zigunez, kohesioaren adierazlea bozka kopurua da. Hainbat jendeak baiezko, ezezko, abszentsio edota zuri bozkatu du. EPPK-ko kideak dira denak, batzuek kontra bozkatu arren, denek bat egiten dute.

Bilerako bigarren puntua zein izan zen?

Presoek beren disponibilitate osoa agertu dute prozesuan ekarpenak egiteko, baita gainerako eragileen ekarpenak entzuteko ere. Presoak bidean dauzkan zailtasunak aztertzen ari dira eta erabakiak finkatzen. Kartzela barruko prozesuak luzeak dira. Presoak beren destinoa eskatzen ari dira, gehienek 2. gradura pasatzeko urratsa eman dute, baina ezetzak jasotzen ari dira. Kolektiboaren %96 lehen graduan dago preso. 2. graduan egonez gero, permisoak izateko baimena eskatu ahal izango dute.

Zein zen hirugarren puntua?

Egindako minaren aitortza. Biktimen egia eskubidea, erreparazioa eta justizia delakoa. EPPK-k haxe esan du: “Prest gaude biktimekin elkarrizketa prozesu eraikitzailea hasteko bizikidetasunaren helburutan, baldin eta orain arte izan ez den marko egokia eraikitzen bada, ‘gaitzespenik gabeko marko bat’”.



Unea baikorra da edonola ere.

Gure ustez, prozesuaren une interesgarrian gaude. EPPK-ren esandakoak badu balore bat, baina segidan, marko egokira iristeko presoek 2. gradura pasa behar dute. Hala ere, gaurko sistemak ez du hori baimentzen, 1. graduak ez du uzten aurrera egiten, presoak botilaren lepora iritsi dira. Preso bakoitzak eskaera propioa egin du eta erantzuna estandarra izan da. Denei haxe esan diete: "Eskaera errefusatzan zaizu desegin gabeko erakunde terrorista bateko kidea zarelako". Argudio bera da denentzat, ez zaizkie kontuan hartzen kartzelako ibilbidea, ez euren jarrera ez lana... Elkarritzeta markoa gauzatzeko hori eman behar da. EPPK prest dago eta eragile guztiek aldeko jarrera erakutsi dute.

Alderdi politiko denek jarrera bera dute?

Bakoitzak bere ñabardurak jartzen ditu, baina euskal alderdi guztiek prozesua garatzearen aldeko jarrera dute. Adibiderako, PSE-EEko Rafaela Romerok "presoei urteetan eskatu zaie bide hori urratzea, eta hasi direnean ez diete uzten" esan berri du. Adierazgarria, ezta?

PPren aurrerapausoa falta da.

PPk eta Espainiako Gobernuak eraba-

» **"Aukerak aprobetxatu behar ditugu, ez dakit nola deituko zaion prozesu berri horri, baina 'propioa' izango da, 2018an bizi dugun egoera politikoari erantzungo dio"**

kiak hartzea falta da. Alfonso Alonsok hedabideetan esan duenez, ETA desegin ondoren -ez zuen desmobilizazio hitza erabili- espetxe politika aldatuko da. Zoidok "presoei legetasun arrunta aplikatuko diegu" esan du. Hori da guk eskatzen duguna, euskal preso politikoei ezartzen zaien salbuespen politikaren orde, legalitate arrunta ezartzea.

Foro Sozialaren eta EPPK-ren arteko elkar ulertzea funtsezkoa da aurrera egiteko.

Prozesu horretan oso garrantzitsua izan da EPPK-rekin harremanak lantzea, beren ekarpenak ekartzea, eta presoei alderdiek eta sindikatuak diotena argi eta

garbi aditzera ematea. Alderdi, sindikatu eta eragile politiko guztiak EPPK-rekin aritzeko gertu egotea da gure lanetako bat. Funtsean, presoen inguruko prozesu erabakigarria gauzatzeko gobernuen, alderdien eta sindikatuen artean akordio tranbertsala lortu behar dugu.

Oraingo bide honen eta Langraitz dela-koaren artean diferentziarik al dago?

Foro Sozialak beti errespetatu ditu preso guztiek hartu dituzten erabakiak, iraganekoak nola egungoak. Gaur testuinguru berri batean gaude, Langraitz bideak ziur aski erantzun zion testuinguru politiko sozial zehatz bati, eta egun beste batean gaude. Aukerak aprobetxatu behar ditugu, ez dakit nola deituko zaion prozesu berri horri, baina "propioa" izango da, 2018an bizi dugun egoera politikoari erantzungo dio.

Zein dira behin-behineko urratsak?

Hiru dira. Lehena: alderdi politiko eta sindikatu guztien arteko akordio integrala lortzea Hego Euskal Herrian. Bigarrena: gizarte zibilarren mobilizazioa, eta hirugarrena: Espainiako Estatuan norabide horretan lagunduko lukeen iritzirikorronte bat sortzea. Hiruak ari gara bideratzen. ■

Oscar Temaru Polinesiako politikari eta aktibista

“Nazio hau ez zitzaien modu baketsuan eman frantziarrei, beraiek dioten moduan”

Oscar Temaru politikari eta aktibistak (Tahiti, Polinesia Frantsesa, 1944) bizitza osoa eskaini dio bere nazioari. Polinesiaren Askatasunerako Frontea sortu zuen 1979an, Polinesiako presidente izan zen 2004-2006 artean, eta 34 urte daramatza Faa Polinesiako komunitaterik handieneko alkate. Bi helburu ditu: Frantziak Moruroa uhartean eginiko proba nuklearrak munduan salatzea eta Frantziarengandik independentzia lortzea.



Amaia Zabala Tolosa

Polinesiako 118 uharteetako bat da Moruroa, Tahititik 1.250 kilometrora. Frantziak proba nuklearrak hasi zituen han 1960ko hamarkadan eta handik gutxira eraginak sufritzen hasi zirenen.

Moruroa klima mediterraneoko irla zoragarria zen, arrantzatza joan ohi ginen bertara. Eta bat-batean, gauza arraroak gertatzen hasi ziren: kokoak erortzen, zuhaitzak ihartzen, arrainak hiltzen... Paisaia guztia horitu zen, eta “ur hauek kutsatuta daude” idatzita zuten seinaleak jarri zituzten. Guk elkarri begiratzen genion beldurrez, kutsaduraren zergatia ulertu ezinik. Ez albis-teetan ez inon ez zuten horren berri ematen. Pixkanaka, Moruroara sartze-ko segurtasun neurriak handitzen joan ziren eta ezin zen argazki kamerarik eraman. Iristean kutsadura neurtzeko aparatu bat zeneukan eskuragarri, baina irteeran bertan utzi behar zenuen. Polinesiarrak arraina jatea izugarri maite dugu eta askok eta askok Moruroako uretan arrantzatzen jarraitu zuten. Gorpu mordoa aurkitu zituzten urteetan eta Frantziara bidali ziren azalpenak

eskatuz. Haiek ordea, inongo azalpenik eman gabe hilkutxetan itzuli zituzten. Hau guztia ikusita, munduari gertatzen ari zena kontatzeko sekulako beharra sentitu nuen.

Gertaera horiek bultzatu zintuzten politika egitera?

Zehazki politika ez. Gure herriarengatik eta jendearengatik egin nuen, gure osasunagatik. Garai hartan zientzialari batzuk ezagutu nituen, horien artean Marie-Thérèse Danielsson andere frantziarra eta Bengt Danielsson jauna, suediarra. Antropologo eta aktibista bikote honek ederki ezagutzen zuen lekua, eta hainbat hitzaldi eman zuten munduan zehar, Moruroako kasuaz. *Moruroa mon amour* liburua ere publikatu zuten. Beraiek izan ziren kutsaduraren arrazoiak azaldu zizkidaten lehen pertsonak: Frantzia proba nuklearrak egiteko erabiltzen ari zela gure herria. Bagenekien oso arriskutsua zela hau salatzen hastea eta Frantziak ahal zuen guztia egingo zuela eragozteko, baina ezin genuen isilik gelditu.

Zuen lehen pausoetako bat izan zen Nazio Batuen Erakundean salatzea.

1978an antolatu genuen lehen bidaia New Yorkera, Kaledonia Berriko ordezkariekin batera, beraiek ere Frantziarengandiko askatasuna lortzeko borrokan ari baitira. Frantziak, baina, agerraldia eragotzi nahi zuen. Bidaia bezperan, Tahitin lanean ari zen funtzionario frantziar bat etorri zitzaidan iluntzean bulegora, eta ohartarazi zidan New Yorkera nuen hegazkina ez hartzeko, aireportuko kontrolean nire maletan droga sartuko zutela eta jendarmeak zain izango nituela kanpoan atxilotu eta kartzelara eramateko. Kontatu zidanez, bere nagusiak izan zuen ezohiko bisita batengatik jakin zuen plana, eta niri abisatzera etorri zen. Eskerrak eman nizkion eta ez nintzen joan aireportura, noski. Gizona duela hiru urte hil zen eta orduan kontatu nuen lehen aldiz gertaera hau. Ez nuen urteetan bere berririk izan, baina 2004an Frantziara egin nuen bidaia batean bisitatu eta berriro ere eskerrak emateko aprobetxatu nuen.



Gertaera horrek ez zintuen kikildu.

Ez, urtero martxoko lehen astean manifestazioak antolatzen hasi ginen. Batzuetan Tahitin eta besteetan Marshall Uharteetan, estatubatuarrek bertako Bikini atoloian egin zituzten proba nuklearrak direla-eta elkartasuna erakusteko. Gogoan dut lehen aldia kalean protestan, hamabost lagun inguru soilik izango ginen. Batzuek erotuta geundela pentsatzen zuten. Guk ordea antolatzaren jarraitu genuen eta urtez urte gero eta gehiago ginen. Pixkanaka munduan zehar ere protestak eta hitzaldiak antolatzen hasi ginen. New Yorkera esaterako, urtean behin hogeit bat lagun joaten ginen Nazio Batuen Erakundearen aurrean hitz egitera. Frantziako ordezkaritza ez zen azaltzen hitzaldi hauetara.

1995ean proba nuklearren aurka sekulako protesta egin zen Papeeten, Tahitiko hiriburuan.

Azken protesta handia izan zen. Frantziako presidente zen garaian François Mitterrandek proba nuklearrak gelditu zituen, baina 1995ean Jacques Chirac

agintera iritsi eta probak berrabiarazi zituen. Sekulako protestak antolatu genituen, mundu guztiko jendea etorri zen: Japonia, Europa, AEBak, Zeelanda Berria, Australia... Frantsesen agintean zeuden hiriko hainbat eraikini su eman zitzairen, horien artean aireportuari. Ondorioz, jende asko kartzelaratu zuten eta behartu zituzten esatera ni nintzela antolatzailea, berriro ere ni kartzelaratu ahal izateko. Baina gertatutakoaren errudun bakarra Frantziako Gobernuak zela deklaratu zuten atxilotuek.

Eta hainbat urtetako borrokaren ondoren, Polinesiako presidente izatera iritsi zinen.

Ordura arteko Polinesiako presidentea, Gaston Flos, Jacques Chirac-en lagun mina zen eta albisteetan behin eta berriro irakur zitekeen bien arteko harremana zein ona zen eta aurreikuspenen arabera urteetan jarraituko zuela gure nazioko presidente izaten. Egoera hori aldatzeko, erabaki genuen Polinesiako partidu txiki guztiekin bat egitea, eta 2004an lehen aldiz hautes-

kundeak irabazi genituen. Frantziako Gobernuak ez zuen hori onartu eta deklaratu zuen Polinesiar hauteskundeak ez zirela bukatu. Berriro kontatu zituzten boto guztiak. Bigarren deklarazioa izan zen esatea Polinesiari diru-iturri guztiak moztuko zizkiotela. Nik honela erantzun nien: "Iturriko kanila itxiko diguzue, baina euriak jarraituko du guri ura ematen eta beti izango dugu zerbait emateko". Ez zituzten inoiz onartu hauteskundeen emaitzak eta sei hilabetera berriro konbokatu zituzten. 2004tik 2013ra bost aldiz izan ziren hauteskundeak eta bostak irabazi genituen. Urte konplikatuak izan ziren, baina Nelson Mandelak dioen bezala, askatasunerako bidea ez da erraza.

Erreferente politikotzat daukazu Nelson Mandela?

Bai, jakina. 1996an aurrez aurre ezagutzeko aukera izan nuen. Kartzelatik irtean egin zuen lehendabiziko bidaletako bat Zeelanda Berrira egin zuen, bertako All Blacks errugbi selekzioari esker emateko, Hegoafrikako Apartheid sistemaren aurka zeudela erakusteko lehenak izan baitziren Munduko Kopako finalean Hegoafrikako selekzioaren aurka jokatzeari uko egiten. Bidaia hori aprobetxatu nuen Mandelarekin egoteko, eta proba nuklearren aurka gendaraman borrokaz hitz egin nion. Orduan aprobetxatu nuen esateko Tahitiko kale bati bere izena jarriko geniola. Eta hil zen egunean Faako kale nagusia Nelson Mandela hiribidea izendatu genuen.

2013an lortu zenuten Nazio Batuen Erakundeak duen deskolonizatu beharreko herrialdeen zerrendan berriz agertzea.

1946an Deskolonizazio Batzordea sortu zuen NBEk, baina urtebete soilik iraun genuen zerrenda horretan, Frantziak kentzea lortu baitzuen. Urteetan eskatu diegu laguntza Frantziaren proba nuklearrak gelditze laguntzeko eta zerrendan egon gabe ezin zigitela lagundu esaten ziguten. Azkenean, urteetan kalean eginiko protestei, lider politikoei egindako eskaerei eta munduan emandako hitzaldi guztiei esker zerrendan berragertzea lortu dugu. Hain juxtu urte berean, Moruroako proba nuklearretan lanean aritu ziren langileen elkartea konpentsazio eske altxatu zen, eragindako osasun kalteengatik. Baina Frantziako Gobernuak agiriak eskatu dizkie,



Oscar Temaru, alboan Amaia Zabala eta Moetai Brotherson dituela. Alderdikidea du Brotherson, Frantziako parlamentuan diputatu.

osasun arazoak proba nuklearrek eragindakoak direla frogatzeko.

Dagoeneko lau urte dira zerrenda horretan zaudetela. Aurrerapausorik eman al du NBek?

2016an Asanblada Nagusiak ebazpen bat argitaratu zuen, esanez Polinesiak bere nazioko baliabide guztien kudeaketarako eskubidea duela eta Frantziak horien agintea eman behar diola. Bestalde, ebazpen horretan lehen aldiz Frantziari proba nuklearrek sortutako osasun arazo eta kalte ekonomikoen inguruko informazioa eskatu dio. Frantziak, noski, oso gaizki hartu du, asko gustatzen baitzaie moralizatzaile papera betetzea eta munduari aholkuak ematen aritzea.

Eta zein da egungo Polinesiako Gobernuaren jarrera gai honekiko?

Edouard Fritch Polinesiako presidentea duela bi urte New Yorken izan zen nazioarteko komunitateari adierazten Frantziaren eta Polinesiaren arteko harremana oso ona dela eta proba nuklearren gaia konpondua dagoela. Berdin haren aitagi narreba, urteetan Polinesiako presidente izan den Gaston Flose: mundu guztian ibili da esanez proba nuklearren kutsadura guztia garbitu dela dagoeneko. Probak babestu eta ezkutatzen dituzte.

» “Moruroa irla zoragarria zen, eta bat-batean gauza arraroak gertatzen hasi ziren: kokoak erortzen, zuhaitzak ihartzen, arrainak hiltzen... Paisaia guztia horitu zen”

» “Hauteskundeak irabazi genituen, baina Frantziak ez zuen onartu eta sei hilabetera berriro deitu zituzten. 2004tik 2013ra bost hauteskunde, eta bostak irabazi genituen”

» “Macroni gutuna idatzi diot, NBek agindu bezala deskolonizazio prozesuarekin hasi behar duela esanez”

Baina kutsaduraren eragina urteetan sufritu duzue polinesiarrek.

1966an egin zituzten lehen proba nuklearrak eta urte batzuetara gaixotasun berri eta ezezagunak iritsi ziren Polinesiarra. Mota ugari minbizi kasu mordoa esaterako. Gaixoen tratamendua eta kutsaduraren garbiketa 50-60 bilioi franko kostatu da urteko. Gu biktimak gara, Frantzia egin beharko litzateke gastu hauen kargu. Moruroan natura purua zen eta gaur egun gerraontziz betetako uharte desertua da.

Emmanuel Macroni gutuna idatzi diozu kargura iritsi eta berehala.

Lehendabizi eskerrak eman nizkion bere kanpaina Aljeriako gerra eta kolonizazioa humanitatearen aurkako krimena izan zela esateagatik. Baina bere horretan geratu ziren deklarazioak; dirudienez Aljeriatik Pariserako bidean Frantzia osoaren presioa jaso zuen. Bide batez aprobetxatu nuen esateko NBek agindu bezala deskolonizazio prozesuarekin hasi behar zuela. Faako aireportua Frantziaren kontrolpean egotetik bertako komunitatearen kudeaketara igarotzea, esaterako. Gutuna jaso orduko Macron Polinesiako presidentearekin bildu zen eta Faako aireportua bertako komunitateak ez baina Polinesiako Gobernuak



GETTY IMAGES

Frantziak 176 proba nuklear egin zituen Moruroako atoloian, eta gaur egun oraindik handia da erradiazio kutsadura, adituen arabera.

kudeatua izateko prozesua hasiko dutela adierazi zion. “Primeran –esan nion–, baina aireportuko zuzendari-tzan Frantziak gehiengo izaten jarraituko al du?”, galdetu nion, eta baietz erantzun zidan. Orduan gauzak ez dira aldatzen; frantziarrek jarraituko dute erabakiak hartzen.

Zenbaterainoko autonomia du Polinesiak eta zer da zuen alderdi politikotik (Polinesiaren Askatasunerako Frontea) eskatzen duzuen?

Konstituzioaren arabera Frantziako gai-nontzeko departamenduen maila berean gaude; 1977an Autonomia Estatutua eman zitzaigun eta hori lorpen handia izan zen. Baina hala eta guztiz ere, Frantziak gure nazioaren kontrol guztia izaten jarraitzen du eta guk erabateko independentzia aldarrikatzen dugu. Ilusio handiz ari gara jarraitzen Kataluniako prozesua eta Frantziako Parlamentuan ditugun hiru diputatuek Kataluniako prozesua babesteko manifestua atera zuten.

Saiatu zarete inoiz erreferendumik egiten?

Gure herria okupatzera etorri zirenean ez zen erreferendumik egin; 1942an etorri eta gerra izan zen, gure jendearen eta Frantziako soldaduen arteko borroka, Polinesiako bost artxipelagoetan. Nazio hau ez zen modu baketsuan emana izan frantziarrei, beraiek dioten moduan. Pa-peeteko hilerri nagusian, gerran hil ziren soldadu eta itsas-gizon frantsesen ome-nez eginiko monumentua dago. 1995ean, guk beste bat eraiki genuen Faako hilerrian, borroka honetan urtetan bizitza galdu zuten gure aitzindarien omenez.

Behin baino gehiagotan salatu duzu bi-zi-maila oso garestia dela tahitiarrentzat.

Polinesiar dugun zerga sistema ez da batere onuragarria guretzat: inportatutako produktu ugari jasotzen dugu hemen eta zerga oso altua daukatenez, prezioa izugarri igotzen da. Gure programa politikoaren puntu nagusienetako bat da bertako baliabideak garatzea, inportatutako produktuekiko hainbeste menpekotasunik ez izateko.

Tahitiera hizkuntza ofiziala al da?

Hau beste arazo handi bat da. Urteak daramatzagu hizkuntza ofiziala izan dadin borrokatzen, baina hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Hori dela-eta, belaunaldi gazteen artean apenas hitz egiten da tahitieraz. Frantzesek ikasten dute eta inguruan guztia frantses hutsen dute, baita hedabideak ere. Gogorra da, baina errealitatea da. Horregatik, Macronek dionenean kolonizazioa humanitatearen aurkako krimena dela, gogorarazten diot Aljerian bakarrik ez, Polinesiar ere hala dela.

Eskoletan tahitieraz ikasteko aukerarik bada?

Gu eskolara joaten hasi ginenean debekatuta zegoen tahitieraz hitz egitea. Orain, Lehen Hezkuntzara arte soilik ikas daiteke tahitieraz. Oso denbora laburra da, ez da nahikoa. Hainbat akademikorekin hitz egin dut horretaz eta argi daukagu algebra, aritmetika, biologia, literatura... Guztia erakutsi daitekeela tahitieraz. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



LETRA TXIKIAREN ZEPOAN HARRAPATUTA

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata igotzeko Madrilen sinaturiko akordioak, baldintza eta baina gehiegi ditu langileei mesederik ekarriko diela esateko. Alderantziz, eskubide ukaezina dena koiuntura ekonomikoaren itsasaldien noraezean uzten du, kristalezko botila hauskor bat balitz bezala. Eta bai Espainiako Gobernuak, bai patronalak baita Espainiako Estatuko sindikatuek ere, badakite ekaitza datorrela.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAKZIA: CEOE

Pasa den abenduaren 26an ekitaldi zaindu batean sinatu zuten Espainiako Gobernuak, CEOE eta Cepyme enpresarien elkarteek eta UGT eta CCOO sindikatuek gutxieneko soldataren inguruko akordioa: 2018an %4 igoko da, 2019an %5 eta 2020an %10. Egun 707 eurotan dena, 850 eurora iritsiko litzateke hiru urte barru beraz.

Madrilgo argazkiarekin batasun eta adostasun irudia erakutsi nahi izan zuten, lan prekarietateaz kezka gero eta handiagoa denean: "Igoera ezartzeko, kontuan izan dira ekonomiaren baldintza orokorretan izandako hobekuntzak", azaldu du Espainiako Gobernuak errege-dekretua onartzerakoan. Unai Sordo Espainiako CCOOko idazkari nagusiak, bere aldetik, esan du negoziazio kolektiboan soldata igoerak lortzeko "akui-lu" gisa balioko duela akordioak. Bai-

na azken orduan gehitutako klausulek eta letra txikiak agerian utzi dute, beste behin, botere ekonomikoek zepoan harrapatuta dituztela.

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata erreferentzia garrantzitsua da, ez bakarrik hitzarmen bidezko soldatak ezartzeko, baita herritarrei oinarritzko errenta batzuk ziurtatzeko ere. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, adibidez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) gutxieneko soldatari lotua dago eta igoera horren arabera egin behar-litzateke teoriarik –praktikan ordea, DSBEak atzera egin du eta gutxieneko soldataren %88 izatetik %75 izatera igaro da hamar urtean–.

Espainiako Estatuan, badira urteak laguntza sozialak neurtzeko beste indize bat erabiltzen dena: IPREM. Indize hori izoztuta dago eta abenduaren 26ko




akordioak ez dakar haren igoerarik. Hala, gutxieneko soldataren eta laguntza sozialak jasotzen dituztenen arteko aldea handituz doa, herritarren zati bat bazterkeria sozialean erortzeko arriskua bezainbeste.

Kritika zorrotzenak akordioaren letra txikiko bi zatik jaso dituzte. Alde batetik, igoerak ez die eragingo lanaldi partzialeko kontratua dutenei –ordaindu gabeko ordu estra gehien egiten dutenak, hain zuzen– eta autonomoei –enpresa bakarrarentzako aritzen diren autonomo faltzuak izanagatik ere–. Gainera, gutxieneko soldata erreferentzia gisa hartzen duten hitzarmen kolektiboetan ere ez da aplikatuko igoerarik. Orduan, zenbat langilez ari gara? CEOEk onartu du 136.000 eskas izango direla akordioaren onuradun zuzenak.



GUTXIENEN SOLDATAREN EFIZIENTZIA

Eurostatek hiru multzotan sailkatzen ditu EBko gutxieneko soldatak, hamabi pagatan: 500 eurotik beherakoak, 500 eta 1.000 bitartekoak eta 1.400 eurotik gorakoak. Espainiako Estatua erdiko multzoan dago orain (756 euro), eta aurreikusitako igoerakin posizio berean geratuko litzateke. Frantziako Estatua, berriz, gutxieneko soldata handiena dutenen artean dago (1.457 euro).



*Parentesi artekoa eurotan.

Iturria: Eurostat.

Europako trenaren azken bagoian

Nolanahi ere, igoerarik ez da izango Gizearte Segurantzaren urtero 450.000 lagunek izena ematen ez badute eta Espainiako BPGa %2,5 ez bada hazten. Lehen baldintza erraz gaitutako dela dirudi, lan-merkatuaren prekarizatzeko basatiaren ondorioz –enplegu duin batetik bi edo hiru prekario egin daitezke oraingo legeekin–. Bigarren bestelako kontua da. Kasik ziurra da aurreko hazkundearen %2,5ekoa izango dela, baina 2019an eta 2020an ez da horretara iritsiko, Europako Batzordeak egindako aurreikuspenen arabera. Eta hain justu azken urte horretan hitzartu da gutxieneko soldataren igoera handiena (%10).

Baina batez ere baldintzak jartzeagatik beragatik jaso dituzte besoak zenbait ekonomialari kritikok: “Sinpleki, gutxieneko soldataren igoera ezin da

hazkunde ekonomikoaren menpe egon. Herriarren eskubideez ari gara, demokrazia, duintasunaz, pobrezia eta bazterkeria sozialaren kontrako borroka...”, azaldu du Fernando Luengo ekonomialariak *La Marea* egunkarian.

Azken urteetako igoera handiena izango den arren, eskasa da oraindik, krisi garaian gutxieneko soldataren bikoitza garestitu baita bizitza. Europako Karta Sozialak dio gutxieneko soldata batez besteko soldataren %60 izan beharko lukeela. LABek 2014ko Eurostat-en datuak eskuan kalkulua egin zuen eta Hego Euskal Herrian %31ra ez zen iristen –Europako azken postuan legoke–; Espainiako Estatukoa %34,3 da eta Frantziako Estatukoa %47,9. Ipar Euskal Herriaren eta Hegoaldearen arteko aldea, prezioen zenbatekoa alde batera utzita, 701 eurokoa da (ikus grafikoak).

ELAk eta LABek gogor arbuia dute akordioa. Lehenak gogorarazi du Gobernuak aurrez erabakita zuela igoera eta, elkarrizketa soziala “falsukeria” iruditua. LABek esan du igoerak handiagoa behar duela izan eta “inolako baldintzarik gabea”.

Azken bi lan erreformen ondorioz gertaturiko prekarizatzeko masiboaren aurrean, ikusi dugun bezala halako akordioak ezdeusa dirudi soldaten igoera orokor bat ekartzeko, baina sikiera eztabaida hauspotzeko balio izango du: berriketan Bartzelonako EADA negozio eskolak argitaratutako ikerketa baten arabera, 2017an langileek %0,27 ikusi zuten murrizturik euren soldata Espainiako Estatuan; enpresetako zuzendaritza karguek aldiz %0,28ko igoera izan zuten eta erdi mailako arduradunek %2,72koa. ■

Ekimen aitzindaria

Hernaniarrek urte osoz eutsiko diote euskarari

Lehenengo ehun erronkalariak otsailaren 3an hasiko dira. Gaztelaniaz dituzten harremanak euskarara ekartzen saiatuko dira. Hilero ehun pertsona gehitzea da helburua. Hala, 2018an 1.100 hernaniarrek hartuko dute parte aurrekaririk ez duen erronkan.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Hizkuntza ohiturak aldatzeko hainbat ekimen izan da Hernanin azken urteotan. Azken ekinaldia 2016koa izan zen. Donostiako Egia auzoko ekimenari jarraituz, sei astez astekako txandatan 1.800 pertsonak hartu zuten parte indar-proba deitutako egitasmoan. 2017a egoste garaia izan da. 2016koa bizi izan zuten batzuek burua astintzen segi dute, ekimen hark jarraipena behar zuela argi zuten. Hala, jauzi handia eman eta 2018rako urte osoko plana egin dute. Euskara Ari Du kultur elkarteak antolatutako *Baietz Hernanik!* ekimena otsailaren 3an hasiko da eta abenduaren 31n bukatuko da.

Euskara Ari Du kultur elkarte sortu berrian hamar bat lagun elkartzen dira. 2017an bilerak egiten hasi eta urte osoko erronka prestatzea ez zen lehenengo bururatu zitzaaien kontua, baina garbi zeukaten hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimenak iraunkorra izan behar zuela. Azkenean urtebeteko egitasmoarekin aurrera egitea erabaki zuten eta dardara sartu zitzaaien asmoak hartu zuen dimentsioaz jabetuta. Prestaketa lanak pilatzen hasi ziren eta erabaki zuten lan boluntarioz soilik ezingo zutela aurrera egin. Udaleko Euskara Zerbitzura jo zuten laguntza eske eta Udalean aho batez

erabaki zuten Euskara Ari Du elkarteari 40.000 euroko diru-laguntza ematea. Langilea kontratatu du elkarteak urte osorako. Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari ere ekimena aurkeztu diete, diruz lagundu dezaten. Hernaniko hainbat enpresatan ere atea jo dute babes ekonomikoa lortzeko asmoz. Harreman ekonomiko horien ondorioz baliteke enpresaren batek lantokian bertan ekimena abian jartzea.

Konpromisoa ez, erronka bai

2017an ekimenaren sustatzaileak elkartzen hasi zirenean ez zekiten urte osoko ideia erokeria ala egingarria zen. Beraiek erabaki beharrean, beste herritar batzuekin hitz egitea erabaki zuten eta 30 lagun hurbildu ziren. Haiek aurrera egiteko esan zieten, baina “ez dugu nahi konpromiso hitza erabiltzea, egokiagoa iruditzen zaigu erronka deitzea”. Bigarren bilera ere egin zuten eta are jende gehiago joan zen. Haiek ere ontzat eman zuten ideia, nahiz eta batzuk ez hain baikor izan: “Uste duzue hain erraza dela ohiturak aldatzea?”.

Eragile taldean ari direnek badakite ez dela egun bateko lana hizkuntza ohiturak aldatzea, baina garbi zuten ezer ez egiteak gutxiago balioko zuela.

Helburu nagusia ohiturak aldatzea da, baina Leire Otxotorena, Joxe Artola eta Axun Larbururekin egin dugun hizketaldian poliki-poliki beste helburu batzuk ere mahai gainera atera dira. Esate baterako helburua urte osoan aritzea da, ez 2016an bezala astebeteko erronkari heltzea. Urte osoan aritzeak ez du esan nahi erronkalari guztiak otsailetik abendura arituko direnik. Otsailerako ehun pertsona prest daude erronkarako. Asmoa da ehun horien laguntzaz edo bere kabuz hurbilduta martxorako beste ehunek izena ematea, eta horrela hilero-hilero. Batzuek ia urte osoan eutsiko diote aukeratutako erronka zehatzari eta beste batzuk, parte hartzen hasten diren hilabetearen arabera denbora gutxiagoz. Hilero, ebaluaketa gisa, hainbat galdera egingo dizkie erronkalariari Leire Otxotorena egitasmoa langileak: zer moduz ari diren moldatzen, zein zailtasun izan dituzten eta ea jarraitzeko asmoa duten. Erronka hilabetekoa baita, eta norberak erabakiko du segitu nahi duen ala ez. Erronka abanikoa zabala da; bikotekidearekin, lagunartean, familian, bizitzako eremu guztietan, ezezagunekin... egin daiteke euskaraz aritzeko ahalegina. Hernaniar bakoitzak aukeratuko du horietako erronka bat eta mantentzen



saiatuko da. Erronkalariak bi eratakoak izango dira. Batzuk euskaraz ondo moldatzen dira eta euskaraz egin nahi dute. Besteek euskara ulertzen dute, baina ez dira hitz egiten moldatzen. Lehenengoek euskaraz norekin edo zein egoeratan egingo duten aukeratuko dute eta bigarrenek berari euskaraz egiteko eskatuko dute, esate baterako senideei, seme-ala-bei edo bezeroei.

Egitasmoak hainbat helburu bete ditzakeela esan dugu. Beste xede bat da hernaniarra konturatzea euskaraz bizi-tzeko aukerak badituela. Datuek ondo-koa diote: hernaniarren %80k euskara ulertzen du, %60k badaki hitz egiten eta %30ak erabiltzen du. Ekimenaren eragileek nahiko lukete ondoko helburua lortzea ere: euskara ulertzen dutenak konturatzea harreman asimetrikoak eman daitezkeela eta beraiek

Euskara Ari Du kultur elkarteak 2017ko abenduaren 2an aurkeztu zuen Hernanin 'Baietz Hernanin!' ekimena. Argazkian ageri dira egun hartan parte hartu zuten herritarrak. Erronkalariak euskaldunak eta euskara ulertzen dutenak izango dira, eta denek ekimenean parte hartzen ari direla ohartarazten duen txapa bera eramango dute paparrean. Argazkia elkarteak berak utzia da.

eskatu diezaieketela euskaldunei haiei euskaraz hitz egiteko. Erdaldunak ere gogoan dituzte, urrunagoko helburutzat dute, baina nahiko lukete haiek esatea: "Horiek ere ari dira bada zer-baitetan...", hau da, euskaldunen komunitatera gerturatzeko beharra sentitzea gustatuko litzaieke.

Antolatzaileek uste dute euskarari eusten saiatzaren direnak beste gauza batez ohartuko direla: "Batzuek diote eus-

karaz bizi direla, baina egiaz ezin gara euskaraz bizi egun osoz eta edozein tokitan, agian euskaraz bizi da egunero-koan baina beti ez du lortuko euskaraz egitea. Erronka honekin errazago jabetuko da egoera horretaz".

Abenduaren 3aren jiran, Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak antolatutako *Euskaraldia* egitasmoa izango da Euskal Herriko udalerrri askotan. Galdetu diegu antolatzaileei ea nola ezkontzen den beraien egitasmoa bestearekin: "*Euskaraldia* eginda daukagu, 2016ko udazkenean egin genuen antzeko ariketa, aurreratuta goaz eta gure bidea segituko dugu".

Umorez, gozatzeko asmoz, erronka gosez, heldu nahi diote hernaniarrek ekimenari, euskarak sarri duen zama eta neke kutsua alboratuta. Milatik gora lagun dantzan jarri nahi dituzte euskara mihian dutela. ■

BABESLEA: **HONDARRIBIKO EUSKARA ZERBITZUA**



Hondarribia
euskaraz bizi



Hondarribiko Udala



BANKARIAK BETI BANKARI



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Sumer (Mesopotamia), K.a. XXIV. mendea. Lagasheko Urukagina erregea, boterea lortu bezain pronto, askotariko erreformak egiten hasi zen. Besteak beste, neurrigabeko zorrak barkatzea eta alargunen eta umezurtzen zerga-salbuespena jarri zituen indarrean. Neurri horiek erakusten dute lehen zibilizazio haietan, ekoizpen soberakinak lortu bezain pronto, burokratak, zergak, zorrak, mailegatzailak eta, beraz, nolabaiteko lehen banku-jarduerak ere agertu zirela. Eta gehiegikeriak ere bai.

Hauxe dio idazkera kuneiformean idatzitako ohol batek: “Adakalak zilarrezko 120 sikloko mailegua jaso du Urdulazagarengandik, 60tik 5eko interesarekin. Siqen hilabetean itzuliko du zenbatekoa”. Beste batzuk larriago zebiltzan eta interes altuagoak onartu beste erremediorik ez zuten: “Ziyatumen seme Irrarak Usellirengandik zilarrezko 60 sikloko mailegua jaso du, 60tik 15eko interesarekin. Zenbatekoa hurrengo ilargiarekin batera itzuliko du. Kontra-



KURPFALZISCHES MUSEUM

tuaren zina Kalki eta Adada lekukoena eta Jainkoen aurrean egin da”.

Errealitate horretan tenpluak egoera hobeezinean zeuden, nekazaritzako eta abeltzaintzako soberakinak gordetzen baitzituzten. Denboraz, soberakin haien espekulatzen hasi ziren eta kleroa, erregeak eta, oro har, aginte politiko nahiz ekonomikoa zutenak etekin handiak lortzen hasi ziren jarduera haiekin. Familia boteretsuek, belaunaldiz belaunaldi, dirua interes altuekin mailegatzten, merkataritza negozioetan bitartekaritza lanak egiten, besteen ondasunak gordetzen eta horiekin espekulatzen zuten, etekin gero eta handiagoak lortzeko. Esan genezake orduan sortu zirela banku jarduera profesionala eta bankari dinastiak.

1893an Pennsylvaniako Unibertsitateko ikerlariak Nippur hirian indusketa lanetan ari zirela, 900 buztinezko ohol topatu zituzten. Testuak itzuli zituztenean konturatu ziren Babiloniako Murashu familiaren hiru belaunaldiko

‘Babelgo dorrea’ (1587) egile ezezaguna. Bertakoa, Babiloniakoa zen Murashu familia, K.a. VI. mendean egindako jarduerengatik lehen bankari dinastiatzat jo daitekeena.

kontabilitatea eta burokrazia kontuak zeudela jasota ohol haietan eta horrek antzinako Mesopotamian gutxienez bankari dinastia bat bazegoela adierazten zuen. Testuetan 2.500 bezeroren izenak agertzen dira eta haien esanetara 60 agente komertzial izatera iritsi zirela ere jasota geratu zen buztinean. Baita Elam lurraldearekin edo Susa hiriarekin tratutan zebiltzala ere.

Gainera, testuek jasotzen dutenez, Murashutarrak Babilonia erori aurretik (K.a. 539) ari ziren bankugintzan eta pertsiarrek, Ziro Handia buru, hiria konkistatu ondoren ere jardunarekin jarraitu zuten, erregearekin berarekin negozioak eginez. Agintean dagoena dagoela, bankariek patrikak betetzen jarraitzen baitute, eta hala izan da Antzinarotik. ■



AIKATERINI LASKARIDIS FOUNDATION

Antikiterako altxor agorrezina

1900 eta 1901 artean, Greziako Antikitera uharte inguruko naufragio batean Antikiterako Mekanismoa deritzon pieza aurkitu zuten, K.a. 150-100 urteen ingurukoa. Oraindik ez dago erabat garbi gailuaren funtzioa, baina adituen esanetan, konputagailu analogikoa zen, kokapen astronomikoak eta eklipseak aurreikusteko diseinatu.

Ontzi-hondarretan aurkitutako objekturik preziatuena izanagatik, ez da bakarra. Ehun urtetik gora pasa dira aurkitu zutenetik eta oraindik urpeko arkeologia lanak emaitzak ematen ari dira. 2017ko kanpaina aurkitutako 37 pieza daude orain ikusgai Pireon, Atenasko portuan, uretan sartuta oraindik, gatzgabetze prozesu mantsoa errespetatuz. ■

"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

www.argia.eus/azoka | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

EZ TXURI, EZ ZURI, XURI



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Lore xuriak zituzten landareen izenen galdezka nuen azkenaldi honetan Joxe Anton Arze, euskal paisajista ederrenetakoa. Honezkero bere argi xuri minean da.

Poeten lilipa (*Narcissus poeticus*), izar-belar arrunta (*Stelaria holostea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*), elorri beltza (*Prunus spinosa*), maaltza (*Pyrus pyraeaster*), asma-belarra (*Datura stramonium*), oilarana (*Prunus mahaleb*), Portugalgo erramua (*Prunus lusitana*), itsas lilipa (*Pancratium maritimum*) sasiakazia (*Robinia pseudoakazia*), milorria (*Achillea millefolium*), sapelarra (*Stellaria media*), garraiska (*Melissa officinalis*), kala (*Zantedeschia aethiopica*), ezkiluntza edo ezkerter zuria (*Calystegia sepium*), axaxar edo ziurda edo ezkerter beltza (*Convulvulus arvensis*), ilarrak (*Pisum sativum*), sasiazaharra (*Philadelphus coronarius*), larre-lirioa edo mugetatzea (*Convalaria majalis*), atzaparra (*Lonicera periclymenum*), bebarkia (*Eruca vesicaria*), basaerratzia (*Ruscus acu-*

leatus), igebelar zuria (*Nymphaea alba*), astamenda (*Mentha x rotundifolia*), erbi isatsa (*Lagurus ovatus*), erle-lore zuria (*Ophrys apifera* var. *albiflora*), nasailorra (*Filipendula ulmaria*), semelora (*Filipendula vulgaris*), arkakaratsa (*Rosa canina*), otzar basatia (*Rubia peregrina*), jasmína edo kresmina (*Jasminum officinale*), San Joan lorea (*Leucanthemum vulgare*), oreganoa (*Origanum vulgare*), mendarora (*Origanum majorana*), latxortena (*Lobularia maritima*), itsabalki zuria (*Melilotus alba*), basa azenarioa (*Daucus carota* var. *carota*), basa bitxilorea (*Bellis perennis*), ziabelar latza (*Galium aparine*), ziabelar usainduna (*Galium odoratum*), artzain zakua (*Capsella bursa-pastoris*), gibel-belarra (*Hepatica nobilis* var. *pyrenaica*), basa urrelilia (*Crysanthemum coronarium*), marrubia (*Fragaria vesca*), garikota (*Silene vulgaris*), endalaharra (*Smilax aspera*), aihen zuria (*Clematis vitalba*), intsusa (*Sambucus nigra*), intsusa gorria (*Sambucus*

recemosa), andura edo txokarroa edo zauka-ziria edo ziaurria (*Sambucus ebulus*), harrautsi zuria (*Saxifraga granulata*), hiru hatzeko harrautsia (*Saxifraga tridactylites*), hirusta zuria (*Trifolium repens*), gaztainondoa (*Castanea sativa*), teilatu-belar zuria (*Sedum album*), estrepá zuria (*Cistus albidus*), mairu-belarra (*Solanum nigrum*), oiloesnea (*Ornithogalum umbellatum*), horma-belar sendakaria (*Parietaria officinalis*), sorgin-baratxuria (*Allium vineale*), hartz-baratxuria (*Allium ursinum*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), gorostia (*Ilex aquifolium*), basoetako mingotsa (*Oxalis acetosella*), baso eguerdililia (*Anemone nemorosa*), anbulua (*Asphodelus albus*), morroina edo borraia (*Borrago officinalis*), zurikatxa edo txilar zuria (*Erica arborea*), gurbitzia (*Arbutus unedo*), ezkilalorea (*Campanula patula*), ardi-mihia (*Valerianella locusta*), xanpora (*Cardamine pratensis*), mendiko aingeru-belarra (*Angelica sylvestris*)... ■



Larre-lirioa
edo mugetatzea
(*Convalaria majalis*).



Etxaldeko emakumeen lehen auzolanean, Zeberioko Basortu proiektuan sagar biltzen.

Etxaldeko emakumeen auzolana Pikunieta baserrian



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: ETXALDE

Elikadura burujabetzaren eta nekazari-tza iraunkorraren bidean lanean diharduen dinamika da Etxalde mugimendua. Duela zenbait urte, mugimenduko emakumeek taldea osatu zuten emakume baserritarren problematikari erantzuna emateko eta baserritarren borrokaren eta feminismoaren arteko aliantzak sortzeko. Udazkenean antolatuta zuten Etxaldeko emakumeen lehen auzolana, eta orain, berriz, negukoaren garaia iritsi da: urtarrilaren 27an egingen dute Antzuolako Pikunieta baserrian.

Baserria feministatzen, feminismoa baserritartzen

Esti Redondo Etxaldeko emakumeetako partaideak azaldu duenez, taldearen helburuak mugimendu feministaren barruan elikadura burujabetzaren aldeko borroka txertatzea eta baserritarren mugimendua feministago egitea dira, besteren artean: "Gure egitasmoen artean zegoen auzolanak egitea, iruditzen baitzaigu auzolanak modu polita direla herri eta hirietako feministak eta baserritar feministak espazio berean elkartzeko".

Hiri-herri eta baserriaren arteko zubigintza horretan, elkarren berri izateko ez ezik batzuen zein besteen lanaren

aitortza egiteko ere balio dute auzolanek, baita zonalde berrietara iritsi eta baserrigintzan dabiltzan beste emakume eta egoerak ezagutzeko ere. Botere asimetriei buelta emanen dieten espazioak sortzea da asmoa. Udazkeneko auzolanean Zeberioko (Bizkaia) Basortu proiektuan aritu baziren sagar biltzen, neguko honetan Antzuolara (Gipuzkoa) mugituko dira artzain bati laguntzera.

Artzainen errealitatea ezagutz

Pikunieta baserriko Josebe Blanco artzainari bere korta margotzen lagunduko diote auzolanean, urtarrilaren 27an. Artzaintzan diharduten emakumeen errealitatera hurbiltzeko aukera izanen dute, beraz, gerturatzen direnek. Ondoren, elkarrekin bazkaria egingen dute.

"Udazkeneko auzolanean 15 emakume inguru elkartu ginen, Zeberio inguruko baserritarrak eta Bilboaldetik hurbildu ziren feministak. Egun polita izan zen, sagar asko bildu genuen goizean, eta gero denak zuhaizpean bazkaldu genuen, jaten eta hizketan, leku batean eta bestean zertan ari ginen kontatzen...". Parte-hartzaileek balorazio oso positiboa egin zuten, eta horregatik erabaki zuten dinamikarekin aurrera jarraitzea. Urtaro bakoitzeko, auzolan bat. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Urtarrilak 26: Durango

19:00etan Euskal Museoa "Lurra" gaiaren inguruan Jakoba Errekondoren hitzaldia, *Hitzez eta Ahotsez 2018* egitasmoaren barruan.

Urtarrilak 27: Durango

11:30ean Berdeago Azokan, *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena eta kontsultategia.

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Urtarrilak 27: Durango

Landako Gunean, Berdeago Nature ekologia eta kontsumo arduratsuaren azoka.

Urtarrilak 27 eta 28: Muxika

Undabaso zaintzeko auzolana, 9:30ean hasita.

Urtarrilak 28: Barakaldo

Nekazaritza azoka.

Otsailak 3: Abadiño

Nekazaritza azoka.

Otsailak 3: Laudio

Txerriaren azoka.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

Azoka ARGIAren erraminta da, Euskal Herriko edozein txokotako salgaiak erraz ezagutu, erosi edo saldu ahal izan ditzagun. Oso aproposa eduki interesgarriak sortzen dituzten eragile eta herritarrentzat eta beren ohiko esparrutik Euskal Herri osora ezagutzera eman nahi dutenentzat. Eta alderantziz: zenbat gauza preziatu eskuratu ditugu halako herriko azokan, beste hango txosnan edo hurrengo erakusmahaian? Orri honetan astero salgai batzuk bistaratuko ditugu. Denak ezagutzeko edo zure ekoizpenak salgai jartzeko:

www.argia.eus/azoka

SUA karta jolasa

Euskal mitologiako pertsonaien larruan sartu eta jolastu! Nork piztuko du sua? Inkisizioak edo herriak?

Jokalari bakoitzak tokatzen zaion pertsonaiaren rola jokatu beharko du Marik gidatuko duen jolasean: Mateo Txistu, Galzagorria, Lamia Mikelats eta Atarrabi, kuxuxeroa... Eta hauek herritarren artean ezkutaturik dauden inkisidoreak deskubritzen ahaleginduko dira. Inkisidoreak, berriz, herritar guztiak sutan hiltzen hauek deskubritu gabe.

- **Ezaugarriak:** 8-24 jokalaria. 10 urtetatik aurrera.
- **Oharrak:** Eskaera egin eta bi asteko epean jasoko da jolasa.



12 €

Beste jolas batzuk



Pareko mahai-jolasa

6 urtetik aurrera. 2-8 lagunen artean jolasteko. Marratzen eta deskribatzen jarriko gaitu.

15 €



Bizi-birzi mahai-jolasa

8 urtetik aurrera. Galdera eta frogekin birziklapenaz ikasiko dugu.

12 €



Perretxiko zaindariak mahai-jolasa

8 urtetik gora. 2-4 lagunen artean jolasteko. Taula berean hiru jolas, perretxiku bila aritzeko.

15 €



AGUR ETA OHORE UNAI BREA

Lasarte-Oriatik Uribe Kostara



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: UK

Ez al duzu urte berriarekin batera etxean jasotako aldizkarian sinadurarik faltan bota, irakurle? Ingurumenari buruzko gaiak jarraitzen badituzu (batez ere), jakin beharra duzu Unai Break ez duela jarraituko orri hauek betetzen. Eta ez pentsa 2018a murrizketekin hasi dugunik, ez, aldaketa bere erabakia izan da, eta lagun bati agur esateko idaztera noa lerrook.

Hiruka Uribe Kostako hedabidean dabil buru-belarri murgilduta dagoeneko Unai Brea, kazetari-taldearen koordinazio-lanetan. Orain hiru urte sortu zen komunikabide hau orduko UK aldizkaria eta ukberri.net webgunea batuta, eta bederatzi laguneko ekipoa osatzen dute gaur egun *Hiruka* astekaria eta izen bera duen webgunea aurrera ateratzeko. Kazetariari ez zaio ezezaguna, ordea, inguru hori; duela hamabost bat urte ibilia da UKn lanean, eta kurioski, garai hartan bera ordezkatu zuen langileak itzuli dio testigua berriz Breari.

Hamahiru urte pasa ditu ARGIAN lanean. Azken hamarrak lantaldean Lasartetik, baina aurretik beste hiru *freelance* moduan kolaboratzen. Orain indartsu sartu behar izan du *Hirukan*,

aldaketa prozesuan baitaude, eta kazetariaren hitzetan "ARGIAN jasotako esperientziak balioko digu zenbait gai lantzerako orduan". Diseinu aldaketa izan du astekariak oraintxe, eta albiste laburrei webguneko eguneroko martxan espazio gehiago emanez, aldizkarian gaiak sakonago lantzea lehenetsi dute. Eta aldi berean webgunea bera ere berritzeko asmotan dira.

Euskal Herri mailatik eskualde mailara

Lan berrian hasi berria bada ere, desberdintasunengatik galdetu diot. "Taina", bota dit lehen hitza, "bai lan-taldearena, eta baita lantokiarena ere", segi du barrez, "lehen ohituta nagoen espazioak ez du zerikusirik gaurkoarekin, eta klaustrofobiko xamarra da". Baina ez hori bakarrik, ARGIAN kazetariak gaika banatzen badira, *Hirukan* herrika antolatuta daude. Dena dela, oraingoz Brea koordinazio lanetan ariko da gehiago erredaktore baino.

Eta ea ARGIAN jarraituko al dugun Unai Brearen sinadura ikusten galdetuta, erantzuna: "Oraingoz hemerrotekan bakarrik topatuko nauzue. Baina blogaren aukera ere hor daukat, eta asmoa dut horri heltzeko lehen zurrumbilo hau pasa eta kokatzen naizenean". ■

Lan eskaintza

Kaixo! ARGIAzalea zara eta erredakzioko lankide izan nahi zenuke? ARGIAN kazetari baten bila gabilta, egun osoz aritzeko.

Balioak praktikan jartzea da gure lan egiteko modua, eta baliatu nahi dugu aukera hau gure erredakzioa orekatzeko bai lurraldetasunean eta bai generoan. 12 erredaktoreetatik 10 gizonezkoak gara eta 10 Gipuzkoan bizi gara. Beraz, ARGIAko erredaktore izan nahi baduzu, emakumea bazara eta Bizkaia, Araba, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Zuberoa edo Lapurdi bizi bazara, bidali curriculumak, urtarilak 31 baino lehen, helbide honetara: curriculumak@argia.eus.

Zure burua aurkezterakoan kazetari-tza lanez gain, era guztietako lan esperientziak zaizkigu interesgarri, baita zer gai jarraitzen dituzun, eta bizitzan eta gizartean zer eremu jorratzen dituzun.

Sarean arrantzatuak

Zuloan

@AHTzuloan

Gipuzkoako batzarkideei #Zuloan liburua helarazi diete, eraikuntzako lan baldintzen berri izan dezaten #prekarietatea



AGENDA

Urtarrilaren 26an, jarraitu zuzenean ARGIA Saria

- 16:00etan hasiko da, Usurbilgo Atxega Jauregian, sari banaketa ekitaldia.
- Argia.eus webgunean zuzenean jakin ahalko duzu 2017ko euskarazko kazetaritzako saritutako lanak zein diren.
- Sare sozialetan #ArgiaSariak traola erabiliko dugu.

Adrián Orr-en *Niñato* filma

Egun on, erresistentzia

Niñato bezalako pelikula gutxi dago. Askotan galdetzen diogu geure buruari non ote dauden gure garai historikoa erakusten duten pelikulak, noiz ikusiko ote ditugun gertuko errealitateak pantaila handian. Baita non ote dauden istorio edo argumentuetatik haratago errealitate horiek lengoia zinematografikoaren bidez islatzeko gai diren pelikulak ere. Erabaki formalak jokoan jartzen dituztenak: zein kamera erabili, zein leiar, nondik filmatu, zenbat denbora, soinua nola grabatu, nola lotu irudi eta soinu horiek guztiak. Askotan galdetzen diogu geure buruari non ote dauden horrelako pelikulak, beraz garrantzitsua da *Niñato* bezalako aurkikuntza ospatzea.



Lur Olaizola
@lur_olaizola



Pablo La Parra
@Pau_Dziga

Eta ez bakarrik ospatzea; baita pelikulari buruz hitz egitea ere, pelikulaz eztabaidatzea eta idaztea, pelikula denok elkarrekin ikustea, pelikula bultzatzea eta aldarrikatzea. Horrela, agian, lortuko dugu pelikulak iraun dezan, berehalakoa gainditu dezan –sariak eta estreinaldiak, urteko film onenen zerrendak– eta etorkizuneko proiektuentzat eredu bilakatu dadin.

Adrián Orr-en (Madril, 1981) lehen luzemetraia da *Niñato*. “Niñato” ezizenez ezaguna den David Ransanz aurkeztuko digu pelikulak, hogeita hamar bat urteko hip hop musikaria. Baina Davidek bere familiarekin dituen harremanetan murgilaraziko gaitu batez ere: Mimi, Oro eta Luna umeekin eta bere guraso eta arreba Elirekin konpartitzen duen

bizimoduan, alegia. Izan ere, Orr-en kamera Ransanztarren etxean sartuko da, Madrilgo auzo bateko elkarren ondoko bi etxebizitza txikitik. Filmak zaintza sare konplexu baten gertuko erretratu zinematografikoa osatzen du –sare hau batez ere familiako emakumeek aurrera ateratzen dutela ezkutatu gabe–.

Niñato nazioarteko hainbat zinemalditan saritu dute. Nyonen, Buenos Airesen, Quiton edo Sevillan, besteak beste. Hala ere, bira arrakastatsu hau baino askoz atzerago bilatu behar da filmaren jatorria, 2013. urtean hain zuzen ere. Urte horretan zuzendariak *Buenos días resistencia* laburmetraia egin zuen. Pieza oso hau *Niñato* pelikularen eszena bakarra da. Bertan Mimi, Oro eta Luna ikusiko ditugu esnatzen. “Egun on” xu-

xurlatzen du Davidek. Oraindik ilun dagoen gelan umeen mugimenduak antzematen ditugu. Pixkanaka hasiko dira janzen, oraindik begiak itxita dituztela. Ez dute esnatu nahi. Ez dute jantzi nahi. Ez dute eskolara joan nahi. Eguneroko erresistentzia erritual bat da. *Niñato* umeen beste esnaldi batekin bukatuko da. Mugikorraren alarmak joko du, begiak irekitzen hasiko dira. Hiru urte pasa dira, umeak hazi egin dira pelikulan gure begien aurrean, baina berriro ere ikusiko ditugu pixkanaka esnatzen egun arrunt batean. Bi esnatze hauek markatzen dituzte *Niñato*-ren denborak. Bi denbora aldi berean. Denbora lineal bat –zuzendaria Ransanz familiarekin bizi izan zen sei urteak– eta denbora zirkular bat –Ana Pfaffek eginiko





muntaia eraginkora sortzen dituen ohi-ko keinu errepikakorrak-. Denboraren halabeharrezko joana eta egunerokotasunaren zirkularitatea. Eta bien arteko bidegurutzean, erresistentzia aurkituko dugu, oraingoan, benetako erresistentzia. Elkarrekin aurrera egitearen duintasuna. Seguruena hau da *Buenos días resistencia* izenburuak ematen digun irakurketa gakoa: *Niñato* erresistentziarik oinarritzkoenaren erretratua da. Egunerokotasunaren erresistentzia.

Erretratu hau egiteko *Niñato* filmaren elementurik garrantzitsuenetako bat haxe da: Orr non kokatzen den, nondik filmatzen duen. Leku hori deskribatu ahal izateko, zuzendariaren hainbat erabaki azaleratu behar ditugu. Hasteko, pelikulan dagoen “barrukotasun” berezia.

» ‘Niñato’ erresistentziarik oinarritzkoenaren erretratua da. Egunerokotasunaren erresistentzia

» Ez da “pelikula sozial” konbentzionala, non “zuzendari konprometitu” bat auzo batera joan eta ia etnografoa balitz bezala errealtate exotiko bat erretratatzeko duen

Niñato ez da “pelikula sozial” konbentzionala, non “zuzendari konprometitu” bat auzo batera joan eta ia etnografoa balitz bezala errealtate exotiko bat erretratatzeko duen. Dimentsio organiko eta zuzena dago *Niñato*-n: David zuzenda-

riaren lagun minetako bat da; musika talde bereko kide ere izan ziren. Beraz, Orr bere auzoa filmatzen ari da, bere mundua. Baina mundu berekoa izateak ez du ezer bermatzen. Erronka gertutasun hori ikusgai egitea da eta, meritua,



kasu honetan, hori lortzeko zuzendariak hartutako erabaki zinematografikoetan datza. Bi erabaki indartsu daude, besteak beste: zuzendariak kameralariarena egin du eta 50mm-ko leiar finko bakar bat baino ez du erabili filmatzeko. Era honetan erretratua literalki distantzia justutik dago egina. Johan van der Keuken zinegileak zioen bezala, distantzia bat negoziatzean datza errealitatearen edozein eszenaratze zinematografikoren oinarritzko galdera: “Nola gurutzatu ni eta bestearen arteko hamar metroak, nola lortu espazio berean egotea... normalean ukitu dezakedan distantzian filmatzen dut, ukitua izan naitekeen distantzian. Eta hor, ukitua ez ezik, ez-onartua ere izan naiteke”. Zinegileak, kamerak eta protagonistek partekatzen duten espazioaren bilaketa, distantzia honen negoziaketa, hauxe da *Niñato*-ren arazo zinematografiko oinarritzkoa. Orrek ikasi behar izan zuen oso leku zehatz batean jartzen, ez voyeur bat sentitzeko bezain urrun, ezta arrotza izateko bezain gertu ere. Eraitza zinearen bidez eraikitako hurbiltasun berezia da.

» Nola egin prekariedade garaiko egunerokotasunaren erresistentziari buruzko film bat? Zuzendariak espazioa erabiltzeko moduarekin lortu du

» Egunerokotasun erradikal bat ikusten dugu: protagonisten erresistentziak eta duintasunak gertuko mundu materiala kutsatzen du

OTSAILAREN 2AN DONOSTIAKO TABAKALERAN

Bilbok urtero zinema dokumentalari eta film laburrei eskaintzen dien Zinebi jaialdian ikusi ahal izan zuten Euskal Herriko ikusleek *Niñato* lehenbiziko aldiz iazko azaroan. Geroztik beste emanaldi bat gutxienez izan du, Gasteizko Monterhermoso kulturguneko Zinema Gaur programaren barruan.

Nolanahi, honelako proposamen zinematografikoak pantaila handian ikusteko aukerak ez dira oso ugariak izaten gurean. Aukera bakan horietako bat izango da otsailaren 2koa: Donostiako Tabakaleran, Aro Atomikoa zikloaren barruan, 19:00etatik aurrera eskainiko dute *Niñato*.

Adrián Orr zuzendaria ere bertan izango da, pelikula ikusi ondoren ikusleekin solas egiteko prest.

Zuzendariaren beste erabaki handi bat zera da: ez azaltzea ezer esplizituki, guztia somatu dadila. Protagonis-
tei buruz, adibidez, ez dago informazio gehiegirik, beraien arteko ahaidetasuna ere ez dago argi. Pertsonaiak beren hitz eta ekintza txikien bitartez besterik ez ditugu ezagutzen. Eta hori nahikoa da, beraiekin bizi gara. Une historikoarekin ere gauza bera gertatzen da. Izan ere, kritika batzuek “tes-
tinguru” falta leporatu diote pelikulari.

Hala ere, askotan boteretsuagoa da hitz-erdika esaten dena inposatzen dena baino. Pelikula-
ren grabaketaren sei urteek bat egiten dute M15 mugimendua-
kin eta haren ondorengo bizi-
tzekin, baita mu-
rrizketa-programen ezarpenarekin eta krisia-
ren efektuen areagotzea-
rekin ere. Elkarrizketaren batean Orrek kontatzen du egoera honi aipamen zuzenik ez egitea nahita hartutako erabakia izan dela. Ikusten ez dugun arren, Davidek eta bere neskalagunak M15 mugimenduan parte hartu zuten eta momenturen batean, zuzendaria sartzekotan egon zen erreferentzia zuzenen bat, eszenaren batean telebista bateko albisteen soinu gehituz, esate baterako. Azkenean, ideia alde batera utzi zuen eta apustu esplizitua saihestea izan zen. Orrek ez zuen “krisia” istorio bateko dekoratu bilakatu nahi. Nola lortu, orduan, garai zehatz hori pelikula osoan zehar antzeman zedin? Nola egin prekariedade garaiko egunerokotasunaren erresistentziari buruzko film bat? Kasu honetan, erabaki zinematografi-
koak espazioarekin dauka zerikusia.

Niñato-n denbora historikoa egune-
roko espazioen tratamenduaren bitar-
tez azaltzen zaigu. Bertan pertsonaiak elkarrekin bizi dira, elkar maite dute, eztabaidatzen dute, amesten dute, ikas-
ten dute. Edward Soja hirigileak zioen

ez dagoela errealitate edo prozesu so-
zialik espaziotik at. Harreman sozia-
lak, Sojak azaltzen duenez, espazio bizi
batean gertatzen direnean bilakatzen
dira egiazko eta zehatz. Hori ere bada
Niñato: bizitako espazioen bilduma. Pe-
likularen eszenak espazio-errepertorio
murritzatu batean gertatzen dira –mai-
tasun eta haserrealdi mundu bat, txikia
eta gertukoa, auzoaren eskala be-
rean–: batez ere, Daviden

familia bizi den elka-
rren ondoko etxebi-
zitza txikiak; bai-
na baita etxetik
eskolarako
bidea, bi-
daia-
ren bat
kotxez edo
metroz;
edo tabe-
na batera
pare bat
irteera la-
bur. *Niñato*
filmeko pro-
tagonistak bi-
zitako espazio
txiki-
etan ibiltzen
diren bitartean, beren

elkarrizketek erresisten-
tzia txikien konstelazio
baten zirriborroa egi-
ten dute zatika. Eskolako
atean, adibidez, Davidek

beste guraso batzuekin hitz egiten du
jangela ordaintzeko zailtasunaz; eta ba-
rrez, umeei etxean bazkaltzen emateko
“eguerdietako kluba” sortzen dute bat-
-batean. Daviden arreba Elik egiten di-
tuen iruzkinez ere beste hainbeste esan
daiteke –Espainiako unibertsitatearen
prekarietate-labirintoan lanpostu bat
sendotzeko borrokatzen ari da perso-
naia hori–. Egunerokotasun erradikal
bat ikusten dugu: protagonisten erre-
sistentziak eta duintasunak gertuko
mundu materiala kutsatzen du, egune-
roko espazioak.

Keinu bat aldarrikatu behar da *Niña-
to*-n: bere koherentzia. Egunerokotasu-
naren duintasun oharkabea aldarrikatu
ez ezik, oso pelikula txikia da bere bai-
tan ere: iraupen laburra, erakunde-
laguntzarik gabe eginga, baliabide formal
eta teknikoen ekonomia txikienean oi-
narritua. Beharbada horregatik da hain
proposamen zintzoa. *Niñato* bezalako
pelikula gutxi dago. ■

Adrián Orr zuzendaria
(Madril, 1981).



LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

ogiaren egia

Galparsoro
OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Joxan Artze

nostalgiatik harago

Albiste urtarilaren 12an iritsi zen erredakzioetara: “Joxan Artze hil da, euskal poesiaren berritzaile eta Ez Dok Amairuko kidea”, titulatu zuen presaz hedabide honek edizio digitalean. Geroztik pieza periodistiko ugari argitaratu dira idazlearen ibilbideaz, hedabideek osatu dute Artzeri buruzko argazki orokorra. Kointzidentziak ez dira gutxi izan. Baina, zer geratu da kanpoan? Eta zergatik? Zenbaitentzat deserosoa izan daitekeen Artze bat ere badago, aho batez txalotu duten poetaren atzean.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

ARGAZKIA: HUHEZI CC-BY-SA

Hasi euskal kulturari garrantzia ematen dioten hedabideetatik eta bukatu Artze nor zen jakiteko Wikipediara jo behar izan duten kazetetaraino, poetari buruzko diskurtsoan nabarmendu da zer lan egin zuen 1960ko hamarkadatik aurrerako euskal kulturaren berpizkundean Ez Dok Amairuko kide gisa; edo nola aritu zen txalaparta berreskuratzeko eta duintzeko ekinean, Jesus anaiarekin batera. Eta nola ez: *Txoria txori* eta *Gure bazterrak*, Mikel Laboak kantatuta euskaldunentzat himno bilakatu ziren Artzeren hitzak. Baina badago Artze gehiagorik “kontakizun bateratu” horretatik harago, egunotan aipatu diren haren liburuetako batzuetan sartu-irten huts bat eginda konprobatu daitekeen moduan. Besterik da ur horietan murgilduta, guztiek txalotzen duten poeta ez ote den batzuentzat deseroso xamarra bihurtzen.

Ez dira askorik aipatu, adibidez, langileek jasaten duten zapalkuntza eta alienazioaren inguruan Artzek bere lehenbiziko liburuetan idatzi zituen poema indartsuak. Garaiko abangoardien ildoan, poesia konkretua deitu izan zitzaionaren antzeko proposamenak zekartzan usurbildarraren estrei-


nako argitalpenak, *Isturitzetik tolosan barru-k* (1969, autoedizioa). Horietako bat zen *lanalanalana* gisa ezagun dena, zeinean makinaria industrial bezala agertzen den “lana” hitza, behin eta berriaz errepikatua, tarteka “gizona” hitzak lekuri ba ote duen galdetuz –orduan oraindik “pertsona”-ren sinonimo gisa erabiltzen zen–, berriz ere makinaren monotoniak zanpatu aurretik.

Artzeren aspektu horrek, beste ale batzuetan ere ageri denak, gaur egungo irakurle askoren bizi-esperientziarekin konektatu dezake. Orduko obreroari bezainbeste ari baitzaio gaurko langile prekarioari, *Laino guztien azpitik* (1973, autoedizioa) liburutik hartutako beste honetan ere:

*Gizona
jana
lana lanagatik jana
makina janagatik makina
nun da GIZONA ?
lepazamarretik heldu genion
gizatasunari
eta mundura, nola hegoak
zabaldutik genituen leihoak*

Kapitalismo industrialak eskaintzen zituen garapen eta ongizate promesen ifrentzua irakur daiteke lehen liburu haietan. Jon Kortazar literatur kritika-riak duela hogeitaz *Lapurdum* aldizkarian publikatutako artikulua batean esplikatzen zuenez, lanak deshumanizatu egiten gaituela azpimarratzen du. Baina lantokitik kanpoko alienazioaz ere ari da, besteak beste kontsumismoa jo-puntu jarritz; edo burgesiari sarkasmoz begiratuz –“gure kale kantoiko / bitxidun / atso lepo zuriak / hala zion: / «eskaleen beharra dago munduan, / bestela / norengan egingo genduke karitatea?»”–; edo fabriketako kutsadurak naturari eragindako hondamena seinalatuz. Eta ez abstraktuki: Artze etxe ondokoaz ari da, Oria ibaiatz, *Isturitzetik Tolosan barru-n*.

*ORIA
odola
herri baten odol usteldua;
hor zoazi
zorne maindireaz estalirik
beldurraren kiratsa dariozula*





Kortazarrek esplikatzeko duen moduan, "Oria ibaia Artzeren poemetan ez da soilik izadi erabili eta lohitu, herri osoak sufritzen duen menpekotasunaren sinbolo ere bada neurri handi batean ibaia".

Erretratua osatzeko enkoadre bila

Artze hil ondorengo kontakizun mediatikoan bigarren planoan geratu da, asko jota, poetaren alderdi hori. 1960ko hamarkadan hasi ziren beste sortzaile batzuekin bezala, zati bat baino ez da hartu oraingoan ere, gaur egungo agintearen

markoan kabitzeko isolatu behar dena hain zuzen: aitona xume eta sinpatiko bat, txoriei buruz idazten zuena, gure bazter ederrez; tradizioaren eta modernitatearen artean kokatutako norbait, egun egiten diren zenbait ikuskizun neo-folkloristen ildoko poesia egin izan balu bezala. Gauza polit eta kaltegabeak idazten zituen Artze bat, apenas problemarik planteatzen duen obra, edukiz hustuta presentatzen zaigulako.

Ahazten da sortzailea uneoro inguratu zuen klima soziala; ez da aipatzen nola puskatu zuen edukiz eta formaz

euskal poeta batengandik espero zitekeenarekin. Hari buruzko diskurtsoa osatzen da bertsio murritzut bat erabiliz, gaur egungo tentsio sozialekin eta kulturgintza aurreratuenarekin loturarik egiteko aukerarik utzi gabe. Artzeren garaiari eta obrari buruzko irakurketa nostalgikoak besterik ezin dira atera hortik, publikoa hondoratzen dutenak itxita dagoen mitologia kolektibo batean.

Ez Dok Amairuri buruz hitz egitean behin baino gehiagotan errepikatu den operazioa da: talde horretako kideek utzitakoaren alderdi "zintzoa" bakarrik sartzen da garaiari egiten zaion argazkian. Gaur egun oraindik deserosoak izan daitezkeenak bazterrean geratzen dira. Nork hitz egiten du, adibidez, artistek duintasun ekonomiko minimo bat lortzeko egin zuten eskariak "Gure jokatibidearen berri" izeneko testuan? Geroztik egin diren kultur politiketan guztiz konpondu gabe geratu diren auziak dirrelako izango da, beharbada?

Baina horrelako kontuak izan behar lirateke, beharbada, 50 urte atzera begiratzean azpimarratu beharko liratekeenak, sortzaileek ez dutelako ibilbidea hutsaren gainean egiten, bizitzea egokitu zaien testuinguruarekin dialektikan baizik. Tentsio horretan, Artzek eta konpainiak marraztu zuten izan zitekeen Euskal Herri bat, existitzen ez zen zerbait, eta jendaurrera eraman, posibilearen mugak zabalduz. *Laino guztien azpitik*-en berak esan zuen egokien:

*Gure borroka
denbora eta lur honetako da.
Geuk egin beharrekoa
geuk ez ezik
beste inork egin ez lezakeena. ■*



Beasaingo Ikastola

HERRI ONURAKO KOOPERATIBA

0-16 urte bitarteko heziketa eskaintza herriaren erdian

BERRITZAILEA. ELEANITZA. EUSKALDUNA ETA GERTU-GERTUKOA

Urbialde, 2 · Beasain · ☎ 943 889 617 · www.beasaingoikastola.eus · beasain@ikastola.eus



EZER EZ DA ZIRRIBORROA



KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Oro ez da urre



Igor Estankona

Nola definitu *Txoriak dira bederatzi*? Liburua-
ren azalean zortzi baino ez dira ageri, Iñaki
Bastarrikaren ilustrazio ederrean. Autolagun-
tzarantz egiten duten hausnarketa filosofiko
-linguistikoak dira liburu honetan aurkituko
dituzun batzuk-batzuk, aforismo aski luzeak
beste batzuk, poemak, artelaren gaineko in-
terpretazio librea... Ametsetan idatzitakoak
zein ametsetik errealtatera egiteko pentsa-
tuak, zer pentsatua ematen duen lana da hau,
poesiatik ihes egin duen Tere Irastortza -nire-
ztat behintzat- ezezagun batek idatziak.

Bizi garenon bizitzaren eta heriotzaren
inguruko saiakera liburu atipikoa da beraz,
hizkuntzaren botere iradokitzailearekin jolas
egiten duena: "Sortzea askatzea balitz, lotura
gabe sortu ahal izango litzateke, pentsamen-
du gabe. Sortzea, baina, aitzinagora jotzea ere
bada. Sortzea, orde, bada, azala berritza:
ustez geure bizipena zenari pentsamendua-
ren moztorra erantztea: dena erretzean geure
gorputza gexal batek baino babesten ez duela
jakitea: eta igartzea, aitzinagoko senak ikasi-
takoaren zurrumbillean atzera jo eta gizakiago
(eta fisikoago) izatera eraman gaitzakeela".

Pamielak edizio txukuna prestatu du irudiz,
tipografiaz, maketaziorik aberatsa. Baina gertu-
ratu eta lau, hori ere batzuetan gertatu ohi da.
Gerturatu eta lau diot, begi bistakoa-
ri errepasoa egiten diolako askotan,
esandakoari gorazarrea enegarrenez.
Liburura zelan hurbildu, agian hor-
txe dago gakoa. Badaude txinparta
ederrak - "Dena ez da irabazia. Hori

***Txoriak dira
bederatzi***

TERE IRASTORTZA

Pamiela, 2017



*Tere Irastortza idazlea
(Zaldibia, Gipuzkoa; 1961).*



dakienak irabazia du dena"- baina, oroko-
rrean, berrikuntzarik gabe grinarik gabe abs-
traktuegi doa. Etnografoaren ikerketa ematen
du uneka, poetaren hausnarketa ere bai. Baina
ez da etnografia, ez da poesia. Horregatik
egin zait anekdoten laburkizun baten antze-
koa. Koaderno batean idatzi eta harekin beste
zer edo zer idazteko materiala badago liburu
honetan, baina gordin emana. Agian literatu-
raren filtroa beharko luke, agian dena ez da ar-
gitaragarri. Saiakera izateko ideiak sakabana-
tuegi daude eta gordetzen duen lirikotasunaz
gozatzeko, oster, begitandu zait ikerketa
tonu sakonegia daukala. Natura-
ri beha eta hizkuntzari beha eta
klasikoei beha, ni neu geratu
naiz zerbait berria ikusteko
gogoarekin. ■

» DISKOA

Etorriko zenaren iragarle aberatsa



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Xabier Montoiaren burutazioa izan zen (ordu-ko) gazteek Mikel Laboak idatzitako kanten bertsioak egitea. IZk eta Elkarrek kaleratu zuten, Seaskarekin, eta dirua Iparraldeko Ikastolentzat bideratu zen. Iaz Elkarrek eta Seaskak berrargitaratu zuten, baina tamalez ia oharkabean pasa zen. Lan hau izan zen Laboak belaunaldien artean egindako zubi-lanari erreparatu zion lehena eta rockaren eremutik aitortza eta eskertza eman ziona bizirik zela.

Lan honek irudikatzen du 90eko hamarkadaren etorrerak Euskal Herriko musika eszenara ekarri zuen aldaketa sakona, mugarririk. Estiloen abanikoa erabat zabaldu eta suntsitzetik eraikitzena pasa zen. Adibide oso esanguratsua da Negu Gorriak-en agerpena disko honetan eman izana. *Txerokee*-n estreinatu zen taldea *Gaberako aterpea* biografikoarekin eta lehenengo hip-hop-a euskaraz entzun ahal izan genuen. Baita zeresana ematen hasi edo ematekoak ziren beste hamar proiektu interesgarri ere: Su Ta Gar-en *Jaiotze basatia* labetik atera aurretik bero hartu zuen publikoak euskal tematika (*Haika mutil*) heavy eta speed-rockaren muga txertatu izana. M-ak taldeak, rocka eta funkya batzen aitzindariak, erreboluzioak geldotu eta erdi tenpora

Txerokee. *Mikel Laboaren kantak* ASKOREN ARTEAN

Elkar / Seaska, 1990

Negu Gorriak taldea
"Txerokee"-n, lehen aldikoz
disko batean.



eraman zuen *Zaude lasai*. Mutrikuko Delirium Tremens itsasotik urrundu eta *Baztan*-eko patxada rockarekin bizkortu zuen. Bukolikotik eta askatasunetik oraindik ere edaten duen Pottokak gitarra zorroztu zion *Iturengo arotza*-ri. Tapia eta Leturiak, *Public Enemy*ren txapela jantzi bezperan, zantzuak erakutsi zituzten *Lekeitioruntz*-en triki, vals, tango eta erokeriaren mix-a eginez. Bap! taldeak *Gogo eta gorpuzaren zilbor hesteak* eman zituen euskal musika, erritmo dantza, tronpeta eta trikia jazz

eta hardcorearen batutapean gozatzeko. Ederra! Herrikide zen Karkaxak ere hardcorea eta Laboaren ikuskera hurbildu zituen *Haika mutil*-en bitartez. Zarauzko Kiowakek *Baga biga higa* korapilatsua rock-saxo-and-roll irabiagailutik pasa zuen. Bukaera talde tolosarrak distortsioz jositako rock oso makurra landu zuen *Ama hil zaigu* piezari zentzu handiagoa emanez. Eta Angel G. Katarain soinu ingeniari eta ekoizle ezagunak garaian elektronikarekin jolastuz *Txoria txori* eta entzuleak hegan jarri zituen. ■

Rockari kolpe bat buruan

EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARAREN FESTA

Urtarrilaren 20an, Ainize Monjolosen.
KliK, Dr Mephisto, Dj Xa2 vs Dj Garbatxoff, Le
Mutant, eta Kaskezur.

Kaskezur taldearen hurrengo kontzertuak:
urtarrilaren 27an Elizondon; otsailaren 16an
Larrabetzun; otsailaren 17an Sopelan; otsailaren
23an Hondarribian; martxoaren 16an Bilbon;
martxoaren 23an Gasteizen...




Andrea Zubozki

Hamahirugarren urtebetetzea ospatu du Euskal Herriko Laborantza Ganbarak. Urtebetetzeetan, laborarien egoitza besta eta kontzertu gela bilakatzen da. Egitarau polita aurtzen ere: KliK, Dr Mephisto, Dj Xa2 vs Dj Garbatxoff, Le Mutant eta Kaskezur.

Disko berria kaleratu duenetik, Kaskezur taldea kontzertuan ikusteko go-goan nuen. Nolabait espero nuen buruan itzulika aritzen zitzaizkidan haien aireez askatuko nindutela.

Bestak bere topea ukitzen du taldea oholtza gainean instalatzen delarik: soinu proba bat eta aitzina! Soinu proban, haien lehen diskoko *Ilgora* abestia ematen digute. Ausarta iruditzen zait; kantu hau nuentzia betea da eta nahiko behera jausten da. Gelan aldiz, jendearen mintzaldi, irri, besta giroak berak kontzertu baten bolumenari konkurrentzia egiten dio. Ez luzarako.



Taldean bateria, baxua eta bi gitarrista abeslari. Launakako rock formatuetan, abeslaria gehienetan eszena erdian kokatzen da. Kaskezurreko abeslariak eszenaren bi bazterretan ditugu. Disposizio horretan, baxu-jolea dugu eszena erdian, bateriaren aitzinean.

Ezohiko disposizioaz gain, noiztenka ezohiko osagarriak ere erabiltzen dituzte: "mailuzko" makilak baterian eta kapodastra pare bat gitarretan.

Kontzertua lehen diskoko abesti batzuekin hasi digute. Haietan *Galdu gara* eta *Haizea hartzera noa*. Azken kantu honetan taldeko gitarrista batek beste afinazio bateko gitarra erabiltzen du. Kontzertuan zehar hala ibiliko da, afinazioak trukatzeko kantuen arabera.

Dena argi ikusi nahi nuen kantuarekin segi dute. Honi loturik etorriko dira kasi disko berriko abesti guztiak. Kantuz kantuz, Kaskezur taldeko musikariek erakus-

tsi digute zoin zehatzak diren. Kantuak denek batera eta akatsik gabe ematen dizkigute.

Besta giroa poliki-poliki lotzen da kontzertuarekin. Kantu batzuek erreperkusi handiagoa aurkitzen dute gelan. Hala nola *Lore sorta*, *Olatua*, edota *Uhin-ertzak*.



Musikariek, zor zaien energia eskainiz ematen dizkigute abestiak. Kaskezurreko kideek energia ona transmititzen dute. Sendi da plazer hartzen dutela, eta haien plazer hori publikoan errazki kontaminatzen da.

Ordu on bat aritu ondoren, eta derri-gorrezko "beste bat!" eta gero, taldeak kontzertuari bukaera eman dio *Izan ginen* kantuarekin.

Kaskezur taldea ikusteko aukera frango izanen da datozen hilabeteetan, musika taldeak astebururo Euskal Herriko hainbat lekutan kontzertuak baititu. ■

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Gorka Pastor musika konpositoreak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.


2	6	8	3	4				7
	3	9		5	1	6		
1	4		2		6			8
6				2			8	1
3	5						9	6
8	7			6				4
5			6		2		7	9
		7	4	3		1	6	
4				9	5	8	2	3

Zaila			2	1					5
	5					8	9		
		6				7	1		
		8		9				4	7
			4				8		
	9	7				5		2	
			5	6				9	
			1	3					4
	6					4	2		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Su handia. 2. Errape. 3. Tentel, motel.
4. Etenaldia. 5. Orpo.



Hizki berak

Osa itzazu hitzak falta direnak hizki berak
direla kontuan izanik, hori bai, hurrenkera
ez da zertan bera izan.

1				K	E	Z	T	U
2	L		R	U	N	B	A	T
3	B	U				R	G	I
4	Z	E	R				T	S
5	H	E	L	D				O
6	B	O	T	A	G			

Ebazpenak

4	1	6	7	9	5	8	2	3	3
9	2	7	4	3	8	1	6	5	3
5	8	3	6	1	2	4	7	9	4
8	7	1	8	6	3	2	5	4	6
3	5	2	1	6	4	7	9	6	6
6	9	4	5	2	7	3	8	1	1
1	4	5	2	7	6	9	3	4	2
7	3	9	8	5	1	6	4	3	8
2	6	8	3	4	9	5	1	7	7

Etirazz

3	6	9	8	7	5	4	2	1	3
6	9	8	7	5	4	2	1	3	3
7	2	1	3	8	6	5	4	9	8
3	4	5	6	1	2	7	9	8	8
1	5	4	2	7	3	8	6	9	6
2	8	3	9	6	1	5	4	7	7
4	6	9	3	7	1	8	2	5	1
5	1	7	4	2	8	9	3	6	3
8	3	2	1	9	6	4	7	5	5

Zaila

"Askok iasi dut eskolara ematen. Nire jakinduria baten guryere gazta baten antzekoa eta eskolara ematerakoan nituen hutsuneak betezen joan naiz."

5x5:

1. Sutea, 2. Ugarte, 3. Takei, 4. Etena, 5. Azala.

Hizki berak:

1. Aurkeztu, 9. Larunbat, 10. Burunargi, 11. Zerrauts, 12. Helduaro, 13. Botagura.

Encarna Bodelón. Berdingoaren bila



Zuzenbidean doktorea eta Antígona ikerketa taldeko zuzendaria da Encarna Bodelón (Bartzelona, 1967). “Generoa eta Berdintasuna” eta “Indarkeria matxisten” graduatu ondoko ikastaroen zuzendarikidea da eta bere ikerketa lerro nagusiak, generoa eta zuzenbidea, eta emakumeen zigor penala izan dira, bertze hainbaten artean.

“Gizonezkoek euren egitasmo feministak sortu beharko lituzkete”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRAS

Zuzenbide feminista

“Zuzenbidea ikusmolde feministatik bizi dut. Ikasketak hasi ahala konturatu nintzen zuzenbidea neutraltzat jotzen den arren, gaur egun etnozentrismo juridiko gisa izendatzen dugun horretan oinarrituta egon dela betidanik. Beraz, 90eko hamarkadako hastapenetan Espainian zuzenbide formazio feministarik ez zegoenez, Holandara joan nintzen ikastera. Orduan konturatu nintzen emakumeon eskubideak ez daudela erabat bermatuta eta, ondorioz, erakundeak sortu direla geure beharrak kontuan hartu gabe”.

Zein da zure ustez emakumeon eskubideen osasuna gaur?

Nazioartean aurrera egin dugu emakumeon eskubideen aitorpenean, baina horrek ez du esan nahi soziologikoki desberdintasunak gainditu ditugula. Europar Batasunean, adibidez, gizon-emakumeen aldea gutxitzetik urruti, hazten ari da. Adibidez, Katalunian zein Espainiako Estatuan ugariak dira hainbat eta hainbat aldagai ekonomiko, hala nola, soldataren arrakala edo emakumeon langabezia. Kezkagarria da oso.

Zenbateraino hobetu da egoera azken urteotan?

Zuzenbidearen arloan, kontzientzia feminista asko hazi da: 90eko hamarkadan ez zegoen jurista feministarik eta orain, aldiz, bai. Baina kasu, oraindik ere, zuzenbideak ez ditu emakumeon eskubideak bermatzen. Zailtasunak desberdinak dira gaur egun, baina bere horretan jarraitzen dute. Sarri gertatzen da eskubide bat ase bezain agudo desberdintasun-gune bat irekitzen dela. Eskubideen borroka etengabeko bilakaera dago.

Antígona ikerketa taldeko zuzendaria zara. Noiz eta nola jaio zen?

Duela 15 urte sortu genuen Zuzenbide Filosofiako hainbat irakaslek. Gure helburua hastapenetik izan zen zuzenbideko irakaskuntza eta ikerketa feminista sustatzea. Urte hauetan guztietan graduatu ondoko hainbat espezializazio sortu ditugu, tartean, eraso matxisten inguruan Espainian egin daitekeen ikasketa bakarra. Bestalde, zuzenbideko ikerketa feminista jorratzen dugu.

Zertan aldatu da taldea?

Jende aunitz hezi dugu, prekarietatearen testuingurua tarteko, ikasketak amaitzeko Espainiatik kanpora erbestera behar izan dutenak. Taldea aldatzen joan da, beraz, baina, ikerketa hainbeste zigortu duen krisi ekonomikoaren gainetik, lortu dugu etengabeko garapenean egotea, pozik gaude.

Feminismoa sarri aitortzen zaigu emakumeoi. Gizonezkoek ere egongo da tartean, ezta?

Nahi baino gutxiago. Antígonan adibidez, %95 emakumezkoak gara. Oro-



korrean oso zaila da gizonezkoak zuzenbide feministara erakartzea. Joera orokortua dela esango nuke, graduondokoetan ere 25 ikasletik urtero gizonezko bat edo bi izaten dira, gehienez ere. Gizonezkoek arazo larria dute, eta feminismora batu baino, euren egitasmo feministak sortu eta autokritika egin beharko lukete. Baina, zoritxarrez, ez dago gaur gaurkoz gizonezkoen egitasmo feministarik.

Hitz egin dezagun espetxe zigorraz. Generalitateko kontseilarien espetxeratzeak berpiztu du emakumeen eta kartzelen eztabaida. Zein iritzi duzu?

Isilarazita dago kartzelen gaia orokorrean, baina zer esanik ez emakumezkoen espetxeratzearena. Espainian eta Katalunian hauen espetxeratzea %6aren bueltan da, baina murrizta izateak ez du justifikatzen gaiak ez hitz egitea. Emakumezkoen espetxeratzea bereziki larria da, gizonezkoenean agertzen diren arazoak larriagotzen direlako. Hala nola, familien deserrotzearen, arazo ekonomikoaren edo bazterketaren bitartez. Baina ez hori bakarrik, emaku-

"Espetxeek, gaur gaurkoz, ez dute funtziorik asetzen. Espetxeak gizartearen porrota dira".

meen espetxeetan bazterketa ikaragarria dago generoari lotuta.

Kataluniak Estatu independente izatea lortzen badu, zein izan beharko litzateke espetxeen funtzioa?

Itxi beharko lirateke. Emakumeena abiapuntu interesgarria da, oso erraza baita emakumezkoen espetxe guztiak ixtea: emakumezkoen %95a jabegoaren kontrako delitu txikiak eta drogen salerosketa dela-eta dago espetxeratuta. Beraz, argi dago espetxeek, gaur gaurkoz, ez dutela funtziorik asetzen. Espetxeak gizartearen porrota dira.

Nola aldatu daiteke presondegietakoa sistema?

Azpiegiturari dagokionez aldaketak egin dira, baina ez da sustatu espetxeratzeen funtzioaren inguruko eztabaida sakonik. Ezinbestekoa da espetxe sistemaren alternatibak sustatu eta testuin-

gurua aldatzea. Adibidez, jabetzaren kontrako delituen edo droga trafikoen aurrean espetxeratzearen zigor alternatiboak daude. Zentzurik ba al du kokaina kilo erdia trafikatzeko duen emakume batek 6 urte ematea preso? Zigor horrek zerbait konpontzen al du gure gizartean? Ezer ez. Baina, ez hori bakarrik, hilketa bat egiten duen edonork arreata berezia behar du, baita egin duen mina konpontzeko ere. Espetxeratzeak ez du ezer konpontzen.

Amaitu aurretik, zein dira berdintasunaren aldeko erronka nagusiak?

Geure sistema ezaugarritzen duen eredu patriarkal neoliberalaren kontrako borroka nekeza da, eta lan asko dugu egiteko, baina baikorra naiz feminismoa geroz eta biziago ikusten baitut. Uste dut erronka nagusia orain gizonezkoekin lan egitea dela: lan asko egin dugu prebentzioari dagokionez, baina gizonezkoak ez dira mugitu. Bestalde, ezinbestekoa da zainketari dagokion lana gizarteratzea, eta azkenik, emakumeen pobreziaaren kontrako neurriak hartzea ezinbestekoa da. ■



ADI, SPOILERRA! Urkullu izango da Mr. Robot telesailaren protagonista berria

Mr. Robot telesail arrakastatsuen laugarren denboraldiko protagonista izateko eskaintzari baietz esan dio Iñigo Urkulluk. Patxi Lopezek irekitako bideari jarraiki, politikari eta antzezle lanak uztartuko ditu aurrerantzean lehendakariak.


Sabin Etxetik adierazi dutenez, pantailea handira salto egitea ez da lehendakariak aurpegiko paralisia duela dioen zurrumurrua gezurtatzeko saiakera. Oposizioak, aldiz, gogor salatu du De Miguel auzitik arreta desbideratzeko

“ke-bonba” dela. “Ez da zilegi telebista baliatu nahi izatea karrera politikoa sustatzeko” adierazi du EH Bilduko Maialen Iriartek, EAJko Joseba Agirretxearekin izandako tertulian.


Sam Esmail zuzendari estatubatuarra giltzarri izan da EAEko lider gorenaren fitxajearen. Zapping egiten ari zela, nahi gabe EiTBSat sintonizatu eta Urkulluren Gabonetako mezua ikustean “oh my garden!, the real Mr. Robot!” oihukatu omen zuen. Ajuria Eneatik gertuko iturriek

SAREAN ARRANTZATUA

Pertsona hondatzeko arriskua, ez baduzu igeri egiten ikasten



Kaleko egiak




baieztatu digutenez, ez da lehendakariak jaso duen lehen eskaintza zinematografikoa: “The Iceman, Gorilas en la niebla eta Xora filmen bigarren zatietan figurante agertzeko eskaintzei uko egin die, oraingoan, baina, Toni Cantóren aholkuak erabakigarriak izan dira Mister Roboten papera onartzeko”. Zurrumurrua jakin bezain pronto, ETBk iragarri du etzi emitituko duela “Alonsotegiko alegantzia” izeneko bi orduko dokumentala gaian sakontzeko.

Emmanuel Macronek borroka armatua defendatu du eta herritarrak armak hartzera deitu

Frantziako presidenteak urrats bat gehiago eman du politikaren modernizaziorantz: prentsak neurri aurrerakoitzat jo du Macronek iragarritako soldadutzaren berrezarpena. “Herritarrak armak erabiltzen trebatuko dira, hori ona da Macron lideratzen ari den iraultzak azken bururaino eramateko”,

idatzi du Patrick Tagueule zutabegile komunista ezagunak. Derrigorrezko zerbitzu militar berria ezartzeaz gain, Macronek bere karguaren izena ere aldatuko du: presidente izatetik, Frantziako Herri Errepublika Demokratikoko Lider Gorena izango da aurrerantzean.





ARGIA SARIAK

— 2018 —

*Euskarazko kazetaritza
eta komunikazioaren sariak*

URTARRILAK 26
USURBILGO ATXEGA JAUREGIAN

Sari banaketa jarraitzeko aukera izango da
arratsaldeko 16:00etatik aurrera:



argia.eus



[#ArgiaSariak](https://twitter.com/ArgiaSariak)



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

WWW.ATXEGAJAUREGIA.COM

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com